



Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren 2011ko Jardueren Memoria



Kontseilu Araupetzaiaren ohiko batzarra, 2011ko urtarrilaren 26a

EHPI-APPV

2011ko Jardueren Memoria

- 1. Sarrera. Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta 2011. urtea.*
 - 2. Administrazioako eta Zerbitzuetako Zuzendaritza*
 - 3. Kudeaketa Akademikoaren Alorra*
 - 4. Ikasketen eta Plangintzaren Alorra*
 - 4.1. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arloa*
 - 4.2. Larrialdien eta Babes Zibilaren arloa*
 - 5. Beste jarduera batzuk: Jardunaldiak, Biltzarrak eta Bilerak*
 - 6. 2011ko proiektuak eta gauzatutako egitasmoak*
 - 7. Urteko prestakuntza-jardueri buruzko konparazio-datuak*
- I. Eranskina. Ikastaroen fitxak*

1. Sarrera. Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta 2011. urtea.

Euskal Herriko Polizia Ikastegiak jarduera handia izan du 2011. urtean.

Izan ere, 2011n, Ertzaintzaren XXIII. Promozioa antolatu da, eta 221 agentek gainditu dituzte hautaketa eta prestakuntza. Horren ondorioz, azkenean, 8.000 ertzain jardunean izateko helburua lortu dugu, eta hori, hain zuzen, Sailaren helburu estrategikoetako bat zen.

Halaber, Ikastegiak ahalegin handia egin du Ertzaintzaren ia kategoria guztietara igotzeko hautaketa-prozesuak martxan jartzeko: lehen mailako agente, ofizialorde, ofizial, komisariorde, komisario eta intendente. Horrekin batera, Bide Segurtasunaren eta eskolten arloetako espezialitateak ere abiarazi ditu.

Era berean, 2011n, Ikastegiak betiko intentsitateaz eta dedikazioz antolatu ditu Euskal Udaltzain Kidegoentzako hautaketa-prozedurak, jarraipen-lanak eta prestakuntza-jarduerak.

2011n, Larrialdien arloko prestakuntza benetan hasi da Ikastegian. 2010ean, prestakuntza hori pixkanaka garatzen hasi zen, baina 2011n prestakuntza-jarduera ugari zabaldu dira, besteak beste, suhiltzaileei (suhiltzaile-kidegoan sartzeko lehenengo ikastaroa antolatu da Ikastegian) eta Babes Zibileko borondatezko langileei zein langile profesionaleri zuzendu zaie.

Ikastegian hainbat ekitaldi garrantzitsu bizi dugu: esate baterako, Ertzaintzaren II. Eguna, Memoriaren Eguna edo XXIII. Promozioiko ikasleei kredentzialak emateko ekitaldia. Beste alde batetik, jardunaldiak ere antolatu dira, besteak beste, Eskuhartze Polizialen Nazioarteko Jardunaldiak, Berdintasun Foroa, Giza Eskubideen Alorreko Polizia Jardunbide Egokiak, bai eta mota guztietako ekitaldiak ere, hala nola Arkauteko I. Tiro Txapelketa, etab.

Horrez gain, Ikastegiak hainbat mintegitan parte hartu du, esate baterako, Europako polizia-agenteen prestakuntzari buruzkoan, Bruselan antolatuan; bai eta mota askotako biltzarretan ere.

2011. urtean, bereziki, bi gertaera nabarmendu behar dira: batetik, Euskal Unibertsitate Publikoaren lankidetzarekin Segurtasunaren eta Larrialdien Kudeaketako Gradua abian jarri izana (harrera ezin hobea izan du); eta, bestetik, garrantzitsua oso, Ertzaintzaren eta Euskal Udaltzain Kidegoen prestakuntzaren eta hezkuntza-sistemako teknikari tituluaren arteko baliokidetasuna onartu izana.

Baliokidetasun horren bitartez, Arkauteko Ikastegia erreferentziazko erakunde bihurtu da, herri-segurtasunari buruzko prestakuntzaren arloan.

2. Administrazioko eta Zerbitzuetako Zuzendaritza

Administrazioko eta Zerbitzuetako Zuzendaritzak hiru arlo kudeatzen ditu, eta oso garrantzitsuak dira Ikastegiaren funtzionamendurako: Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren Arloa, Kontratazioaren eta Aurrekontuen Arloa eta Informatika Arloa.

Hiru arlo horiek funtsezkoak dira Ikastegiak ondo funtziona dezan. Askotan, Zuzendaritzaren lana ez da Prestakuntzaren arlokoa bezain agerikoa, baina haren oinarrian dago. Hala ere, 2011n, jardueren kopurua nabarmen areagotu da, eta horren isla izan dira Zuzendaritzak kudeatu behar izan dituen eskaerak.



2.1. Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren Arloa

Euskal Herriko Polizia Ikastegiko Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren Arloaren oinarriko eginkizunak dira honako hauek:

- a) Ikastegiko Giza Baliabideen Kudeaketa eta Administrazioari lotutako jarduerak planifikatzea, antolatzea eta gainbegiratzea. Horretarako, agente-kopurua eta -kalitatea egokitu behar ditu, Herrizaingoak Ikastegiari agintzen dizkion eginkizun eta helburuen arabera.
- b) Lanaren eta Administrazioaren Alorretako Aholkularitza Juridikoari dagozkion jarduerak zuzentzea, planifikatzea, antolatzea eta gainbegiratzea. Helburua Ikastegiko jardunen legezotasuna bermatzea da, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingoaren mendeko erakunde autonomo bat dela aintzat hartuta.
- c) Informazio eta Erregistro Zerbitzuaren jarduerak zuzentzea, planifikatzea, antolatzea eta gainbegiratzea.
- d) Itzulpen eta Hizkuntza Normalkuntzarako Zerbitzuaren jarduerak zuzentzea, planifikatzea, antolatzea eta gainbegiratzea.

2.1.1. Giza Baliabideen Kudeaketa eta Administrazioa

2011n, Euskal Herriko Ikastegian 171 langile aritu dira, honela banatuta:

- Goi-mailako kargudunak:	2
- Lan-kontratadunak:	110
- Ertzaintzako funtzionarioak:	49
- Herri Administrazioko funtzionarioak:	10
Guztira:	171

Giza baliabideen arloari dagokionez, honako jarduera hauek nabari dira:

- Funtzioak behin behinean esleitzeko **14** prozedura izapidetu eta kudeatu dira.
- **14** lan-kontratu izapidetu eta kudeatu dira.
- **2** kontratu berritzeak izapideak eta kudeaketak egin dira.
- Langileen Kudeaketa Integratuko sistemaren bitartez (LKI), **115** espediente kudeatu dira.
- Erakunde autonomoko langileei lotutako **3.858** lizentzia eta baimen kudeatu eta izapidetu dira (batez beste, pertsonako 1,8 lizentzia edo baimen hilabeteko).
- Ertzain zein udaltzain izateko prestakuntza jasotzen ari ziren ikasleei zegozkien **1.255** lizentzia eta baimen kudeatu eta izapidetu dira.
- Administrazio-arloaren ikuspegitik, 2011n hasi diren ikastaroetan sartzeko prozeduretan beharrezko betekizunak bete direla gainbegiratu da.

- Ertzaintzaren XXIII. Promozioan praktika-funtzionario izendatutako **221** funtzionariori praktikak egiteko tokia esleitu zaie, sistema berriaren bitartez.

Lan-harremanen arloan, nabarmentzekoak dira honako jarduera hauek:

- **343 langileren** soldata-orrien kudeaketa antolatu eta gainbegiratu da, honela banatuta:

Goi-mailako kargudunak:	2
Lan-kontratadunak:	110
Herri Administrazioako funtzionarioak:	10
23. Promozioko praktika-funtzionarioak:	231
Guztira:	343

- Aurrekontua (I. eta IV. kapituluak) prestatu da Kontratazioaren eta Aurrekontuen Arloarekin batera.
- Ikastegiko langileen ordainketa aldakorraren kudeaketa eta ezarpena zuzendu eta gainbegiratu dira.

Lan-kontratadunak:	110
Ertzaintzako funtzionarioak:	49
Guztira:	159

- Halaber, indarreko Hitzarmen Kolektiboan adostu ziren gizarte-irabaziak zuzendu eta kudeatu dira; besteak beste, Gizarte Funtza, **32 onuradun** dituen, kudeatu eta banatu dela nabarmendu behar da.
- Ikastegiko lan-egutegiak ezarri dira (Administrazioaren arlokoa, Ikasleena eta Ostalaritzaren arlokoa).
- Bai ikastegiko langileek, bai Ikastegian zerbitzua ematen duten kolektiboek ordutegia betetzen dutela gainbegiratu da.

2.1.2. Aholkularitza juridikoa

Erakunde autonomoa kudeatzen laguntzeko zerbitzu horizontala den aldetik, jarduteko honako eremu hauek nabarmendu behar dira:

- a) Hautaketa-prozesuetan beharrezkoak ziren administrazio-egitateen administrazio-kudeaketa eta gainbegiratze juridikoa egin da. Hautaketa-prozesuak ondokoak izan dira:

Igotze-prozesuak:

- Lehen mailako agenteen kategoriara igotzeko.
- Ofizialen kategoriara igotzeko.
- Komisariordeen kategoriara igotzeko
- Komisarioen kategoriara igotzeko
- Intendenteen kategoriara igotzeko

Espezializatzeko- prozesuak:

- Bide-segurtasuna
- Eskoltak
- Esku-hartzeak
- Lehergailuak eta NEBK (eragile nuklear, erradiologiko, biologiko eta kimikoak).

Gaitze-prozesuak:

- Egitarapen-eskalan sartzeko
- Eskala gorenean sartzeko

Prestatze- eta hobetze- prozesuak:

- Tiro polizialean

Hizkuntzan trebatzeko prozesuak:

- XIII. Promozioko euskara-arloa.
- 1. HE (HE 20) egiaztatzeko
- 1. HE (HE 21) egiaztatzeko
- Autoikaskuntza

Beste batzuk:

- Ertzaintzako kirolarientzako diru-laguntzak.

b) Administrazio- eta gizarte-gaiak kudeatzen dituen idazkaritzako langileen sindikatu-ordezkariek hautatzeko prozesuak antolatzeko akta eta jakinarazpen guztiak egin dira.

c) Etengabeko Prestakuntzari buruzko ebazpen, eginbide, jakinarazpen eta berriemate guztiak egin dira honako arlo hauetan.

- ✓ Babes Unitatean
- ✓ Esku-hartzeen Unitatean
- ✓ Herritarren Segurtasunerako Unitatean.

- d) Prestakuntza-ikastaroan hasteko ebazpenak eman dira. Horrez gain, praktika-aldiak antolatzeari eta gainditzeari buruzko izapideak egin dira, bai eta horiei dagozkien eginbideak prestatu ere. Horrez gain, jakinarazpenak udaletara bidali dira eta Udaltzaingoa sartzeko edo beste lanpostu batera igotzeko hautaketa-prozesuen berri eman zaie interesdunei.
- e) EIZU proiektuan parte hartu da
- f) Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiak bateratzeko proiektuan parte hartu da.
- g) Ikastegiaren egintzen edo xedapenen aurka aurkeztu diren prozedura judizialen eta haiei lotutako ebazpenen jarraipena eta kontrola egin dira.
- h) Ikastegiak ebatzi beharreko administrazio- eta lan-prozedurak izapidetu dira.

Hori guztia egiteko, beharrezkoak izan dira honako jarduketa hauek:

- **266** espediente (administrazio-, auzi- eta lan-espedienteak)
- **3** agindu
- **536** ebazpen
- **21** txosten juridiko
- **181** eginbide
- **158** akta
- **60** iragarki EHAAn
- **127** ohar Iragarki Taulan

2.1.3. Informazio eta Erregistro Zerbitzua

Jarduera horri dagokionez, oso nabariak izan dira honako ekintza hauek:

- Euskal Herriko Ikastegian sartu diren **5.229** agiri erregistratu dira.
 - Haietako **638** Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren arloari zuzenduta zeuden.
- Euskal Herriko Ikastegitik irten diren **5.829** agiri erregistratu dira.
 - Haietako **2.484** bidali ditu Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren Arloak.

2.1.4. Itzulpen eta Hizkuntza Normalkuntzarako Zerbitzua

Guztira **573** itzulpen egin dira, hainbat agiri-motakoak.

Hizkuntza Normalkuntzari dagokionez:

- Euskara ikasteko 2010-2011 aldiko ikastaroan, **Ikastegiko 12 pertsonak** parte hartu zuten, eta **3.358 lanordu** inbertitu.
- Euskara ikasteko 2011-2012 aldiko ikastaroan, 2011- urtea bukatu arte, **Ikastegiko 8 pertsonak** parte hartu zuten, eta **970 lanordu** inbertitu.
- TREBAKUNTZA programaren bigarren aldian (2011ko ekainaren 23an amaitua) **6 pertsonak** parte hartu zuten, eta **336 lanordu** inbertitu.
- TREBAKUNTZA programaren hirugarren aldian (2011ko urrian amaitua) **7 pertsonak** parte hartu zuten, eta **168 lanordu** inbertitu.
- Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko deialdietan, IVAPEk antolatuetan, honelakoa izan zen parte-hartzea:
 - 2011ko lehen deialdian: **11 pertsona.**
 - 2011ko bigarren deialdian: **7 pertsona**

2.2. Kontratazioaren eta Aurrekontuen Arloa

Arlo honen eginkizunak ez dira soilik administratiboak. Kontratazioaren eta Aurrekontuen arloak, espedienteak kudeatzeaz gain, beste arlo batzuetan ere ardurak ditu, Ikastegiari ez ezik Herrizaingo Sailari ere laguntzekoak.

Hori dela eta, bere eskumenetako bat urteko aurrekontuak egitea eta betearaztea da, eta horrez gain, honako egiteko hauek ere bere gain hartzen ditu: beharrezko ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea eta arloari atxikitako zerbitzuak zuzentzea, planifikatzea eta gainbegiratzea. Atxikitako zerbitzuak dira:

- Kontratazioa eta kontabilitatea
- Ostalaritza
- Mantentze-zerbitzua
- Inprenta
- Biltegi orokorra
- Armak eta munizioa
- Ibilgailutegia

2.2.1. Kontabilitatea eta Kontratazioa

- 2012ko aurrekontuaren aurre-proiektuan parte hartzea.
- 2011ko aurrekontua:
 - Soldata-orrietan gertatutako gorabeherak aztertzea eta kudeatzea (I. kapitulua) eta aurrekontu-neurri zuzentzaileak zehaztea.
 - Kontabilitate-jarduerak antolatzea eta gainbegiratzea: kontabilitateko egozketa, diru-sarreraren eta gastuen likidazioa, aurreraturiko funtsen arrunten kudeaketa, etab.
- Obrak, hornidurak eta zerbitzuak planifikatzea eta kudeatzea:
 - 45 kontratu handi eta 280 kontratu txiki kudeatu dira. Ondorioz, 2.789 kontabilitate-agiri eta aurreraturiko funts arruntei buruzko 1.596 idazpen izapidetu dira.
 - Ikastegiko kontratazio-mahaiaren idazkaritza.
 - Ikastegiak bere gain hartu du Kontratazio-espediente bat egiteko beharrezkoak diren lan guztiak, lehen Ekonomia Kudeaketa eta Kontratazio Zuzendaritzak egiten zituenak. Zerbitzu-espedienteak egin dira hautaketa-prozesuak laguntzeko, proiektua idazteko, ikastegia berritzeko, mantentze-biltegia eraberritzeko, gidatze-arloko materiala kudeatzeko, logelak eraberritzeko, etab.
 - Kanpoko irakasleak kontratu dira zenbait ikastaro emateko: intendente-ikastaroak, komisario-ikastaroak, gaikuntza-ikastaroak, euskara-ikastaroak, igeriketa-ikastaroak, droga detektatzeko ikastaro bereziak, laguntza psikologikoko ikastaroak eta sorospen-ikastaroak;

horrekin batera, Simunion irakasle bat eta suhiltzaileak trebatzeko irakasle bat ere kontratatu dira, besteak beste.

- Ertzainei zuzendutako hobetze-ikastaroetan parte hartzeko matrikulak eta ikastaroetara joan direnen kudeaketa egitea.
- Ikastegiko atal guztietarako gaiak erostea.
- Eta abar.

2.2.2. Ostalaritza-zerbitzua

XXIII. Promozioa martxoaren eta abenduaren bitarteko hilabeteetan antolatu zen, eta 230 ikaslek parte hartu zuten; horregatik, Ostalaritza Zerbitzuaren lana zeharo areagotu zen. Horrez gain, Ikastegian antolatutako prestakuntza-jardueren eta ekitaldien kopurua nabarmen igo da 2011n: Poliziaren Nazioarteko Jardunaldiak, Motozikletaz segurtasunez gidatzeko promozioa, Giza Eskubideen arloko Jardunaldia, Ertzaintzaren Eguna, Komisarioei diplomak emateko ekitaldia, XXIII. Promozioiko ikasleei kredentzialak ematekoa, etab. Hori guztia egiteko, beharrezkoa izan da Ostalaritza Zerbitzuak lan handia egin dezan, eta, beti bezala, maila handiko eta kalitatezko zerbitzua eman dute.

Jarduera horiek guztiak taula honetan laburbildu dira:

	GOSARIAK	BAZKARIAK	AFARIAK	ZERBITZU BEREZIAK
2011ko urtarrila	921	3.000	745	
2011ko otsaila	1.767	4.991	1.101	15
2011ko martxoa	5.585	10.850	4.308	40
2011ko apirila	3.359	7.305	2.420	37
2011ko maiatza	5.227	12.344	4.575	
2011ko ekaina	5.434	9.150	4.110	10
2011ko uztaila	4.824	6.360	3.265	7
2011ko abuztua	0	0	0	
2011ko iraila	4.717	7.245	3.415	
2011ko urria	3.832	7.833	3.126	90
2011ko azaroa	5.019	8.236	4.165	5
2011ko abendua	2.238	3.397	1.090	
	42.923	80.711	32.320	204

Ostalaritza-zerbitzuarekin batera, kafetegi-zerbitzua ere kudeatu da.

2011ko urriaren 26an, Herrizaingo Sailaren agindu batean finkatu ziren Ikastegiaren ostalaritza-zerbitzuen prezioak. Izan ere, Ikastegia inauguratu zenetik, Ikastegian

ematen ziren bazkari- eta kafetegi-zerbitzuen prezioak ez ziren inoiz eguneratu. Edonola ere, bermatuta dago ostalaritza- eta ostatu-zerbitzua prestakuntza-jardueren osagarri eta doakoa dela.

2.2.3. Mantentze-zerbitzua

Ikastegia bezalako azpiegitura batean mantentze-zerbitzua ezinbestekoa da, eraikinak eta instalazioak zainduko badira. Gainera, zerbitzuak behar bezala funtzionatu behar du, eta araudi aplikagarrietan ezarritako betekizunak bete behar ditu teknika-arloan, segurtasun-arloan, osasun-arloan, etab.

o Prebentziozko mantentze-lanak:

- ✓ Honako hauek garbitzea eta ikuskatzea: teilatu-hodiak, teilatuak, xukatzeko ponpak, berokuntza-sistemak, araztegia, putzu septikoak, tximistorratzak, transformazio-guneak, multzo elektrogenoa, kontrol-koadroa, lur-harguneak, propano-instalazioak, galdarak, igogailuak, igerilekuak, gimnasioko makinak, sukaldeko tresneria, sukaldeko atearak, garitan sartzeko eta handik irteteko ate automatikoak, presio nagusiko multzoak, sua itzaltzeko multzoak, tiro-zelaietako euskarriak eta silueta-makinak, tiro-zelaietako konpresoreak eta abar.
- ✓ Honako hauek kontrolatzea, ikuskatzea eta haien jarraipena egitea: suteak detektatu eta itzaltzeko sistemak, etxeke uraren eta igerilekuetako uraren tratamendua, kloro- eta azido-dosifikatzaileak, ur-gordetegia, etab.
- ✓ Propanoaren, gasolioaren, uraren eta abarren kontsumoa aldizka kontrolatzea eta haren jarraipena egitea.
- ✓ Garbitasun-zerbitzua, kanpoko enpresa batek eginga, kudeatzea eta kontrolatzea.

o Mantentze-lan zuzentzaileak:

Mantentze-lan zuzentzaileei dagokienez, Barne Araubideko zerbitzuak, garbitasun-zerbitzuak edo erabiltzaileek lan-orri baten bitartez matxuren berri ematen diote Mantentze Zerbitzuari. Hartara, Mantentze Zerbitzuak honako konponketa-lan hauek egin ditu: txorrotak, komun-ontziak, dutxak, kristalak, azulejoak, ur-harguneak, ur-iturriak, gidatzeko pistetako aspertsoreak, berogailuak, ate- eta armairu-sarrailak, gortinak, sarraila-giltzak, altxatutako teilak, asfaltozko geruza, berokuntza-sistemak, igerilekuak, sukaldeko tresneria, lanpara erreak, entxufeak, lurzoruko narriadurak, erlaitzeko narriadurak, ur- eta berokuntza-ihesak hodian eta abar. Egindako lan guztiak aipatuko ez diren arren, adibide gisa adieraziko dugu 150 lan-orri bidali direla barnetegitik.

o Instalazioak hobetzea:

Ikastegiko instalazioak hobetzeko, honako jarduteka hauek egin ditugu:

- ✓ Leihoak aldatzea: 6. txalet osoan, 7. txaletean (garajeko leihoa, txaleteko alboko leihoak). Ibilgailutegian: inprenta-korridorean, biltegi-korridorean, inprentako komunetan, etxebizitzetan, garbiketa-gelan eta automozio-tailerrean. Tiro-zelaietako eraikinean: geletako leihoak. Eraikin nagusian: hegoaldean.
- ✓ Lokalak pintatzea: frontoi handia, ekitaldiak antolatzekoa. Ibilgailutegian: biltegitik inprentaraino doan korridorea, sarbideak eta automozio-esparrua: harrera-aretoa eta gela. Eraikin nagusian: Ebaluazio-esparruan (lehen Hautaketa- eta Jarraipen-esparrua), Mantentze-arloko buruaren bulego berria, Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren arloko buruaren bulego berria. Prestakuntza-eraikinean: barnetegia, kafetegiaren ondoko garbiketa-gela.
- ✓ Teleoperadoreak trebatzeko gelak ekipatzea; horretarako, Txurdinagatik Ikastegira altzari bereziak lekualdatu behar izan ziren.
- ✓ Gidatze-pistan eta motozikletaz zirkulatzeko pistan konponketa-lanak egin dira: zuloak kentzea.
- ✓ Iparraldeko eremuko hodi nagusia aldatzea.
- ✓ Frontoien bazterrak eta I. moduluaren aurreko erretenak konpontzea.
- ✓ Tiro-zelaiko kutxak aldatzea eta kapotan azken konponketak egitea.
- ✓ Ibilgailutegiaren aurreko txakurtegi zaharrak eraistea.
- ✓ Ur-horniduraren sareko zazpi ihesa konpontzea: Budokan zuzenean, sukaldeko zuzenean, txalet-eremuan, eraikin nagusiko aparkalekuan eta tiro-zelaietan.
- ✓ Sareko kableak luzatzea: 6. txaletean; Zuzendaritzaren bulegoan; eraikin nagusiko hainbat bulegotan (Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren Arloa eta Kontratazioaren eta Aurrekontuen Arloa berriro antolatzeko). Tiro-zelaietan: 4. zelaian eta 7. gelan.
- ✓ Eraikin nagusiko eta barnetegiko guneak berriro antolatzea.
- ✓ Ikus-entzunezko bulegoetan eta prestakuntza-korridorean antena bat jartzea.
- ✓ Entrenamenduetarako modulu-zentroa (*Killer House*) Ibilgailutegian jartzea, praktika polizialak egiteko.
- ✓ Tiro-zelaietan honako lan hauek egin dira: 4. eta 5. tiro-zelaiak berriro lotzeko lanak bukatzea eta entregatzea; harea bahetzea (abuztuan); 1., 2., eta 3. tiro-zelaietako biltegi-esparruak egokitzea; garbiketa-geletako aire konprimituzko instalazioa zaharberritzea; atzeko lerroetako zurak kentzea, jausiak saihesteko; aurreko lerroetako zurak errepasatzea; 3. zelaiaren

eskuineko aldeko hormako pitzadurak konpontzea; atzeko aldean kautxua aldatzea eta konpontzea; hareari eusteko horma txikiak; makinak eta zutabeak babesteko horma txikiak; makina eta idulki zaharrak kentzea.

○ Beste hobekuntza batzuk:

- ✓ Biltegi orokorra: elektrizitate-instalazioan hobekuntzak egiten hasi da: koadro elektriko berriak jartzea: potentziaren eta argien koadro orokorra lehen solairuan; arropa-biltegiko koadroa; bulegorako koadroa; bulegoko hotz-/bero-ekipoei zerbitzu ematea, bai eta biltegiko hotz-sistemei ere.
- ✓ Tiro-zelaietako eraikina: 2010ean hasitako hobekuntza egiten jarraitu da: argien koadro orokorra, soto-solairuan; argien lineak, larrialdietarako argiak, argi-tresneria eta 1. 2., eta 3. tiro-zelaietako fokuak aldatzea; zerbitzuz kanpoko linea guztiak kentzea, berriak instalatzea eta arau berriei egokitzea: megafonia, telefonia, interkomunikazio-sistemak, itu zaharrak, etab.
- ✓ E-4 eta E-5 (EUSKARRI) geletako harguneak berritzea, erabileraren aldaketa dela eta: koadro independente bat gela bakoitzeko, eta postuetako kanaletak eta entxufeak prestatzea.
- ✓ Sute-multzoko bateriak aldatzea: bateria berriak mantentzeko kargagailua.
- ✓ Argiak: Ibilgailutegian egindako hobekuntzak: Tailer mekanikoko buruaren bulegoan. Eraikin nagusian: telefonogunean eta korridoreetan. Prestakuntza-eraikinean: kafetegiaren alboko garbiketa-gelan; sarreran dauden piramideetan kanpoko 24 argi, bola-itxurakoak (etekin handiko sistema osoa).
- ✓ Behin-behineko korrante-harguneak jarri dira, ekitaldietan erabiltzekoak.

○ Inbertsioak: altzariak eta tresneria erostea

- ✓ Eraikin nagusian Aholkularitza juridikoko esparrua bereizteko manpara jarri da, eta ondoren, laminak ere jarri dira.
- ✓ Eraikin nagusiko korridorean telefonista-tokia eraiki da, eta ondoren, laminak jarri dira.
- ✓ Eraikin nagusiko telefonista-tokirako altzariak erosi dira.
- ✓ Prestakuntza-korridoreko bilera-aretoko altzariak.
- ✓ Ordena publikoko produktuak gordetzeko segurtasun-armairua.
- ✓ Prestakuntzaren eta ikus-entzunezkoen arlorako zazpi proiektagailu erosi dira.
- ✓ Gortinak jarri dira honako leku hauetan: 6. txaletean; J. moduluan: Babes Zibileko gelan; Mediku Zerbitzuan: mediku-kontsultategian. Tiro-zelaietan: proiektzio-gelak ilundu dira. Eraikin nagusian: Langileen eta Aholkularitza

Juridikoko Arloko buruaren bulego berrian eta 6. txaletean *Velux* gortinak jarri dira.

✓ Sukaldean egindako inbertsioak: kutxa hoztailean eta izotz-makinan.

o Guneen antolaketa:

✓ Ikastegian sartu berrientzako bulegoak prestatu dira, altzariak berrerabili dira, armairuak eta oheak beharrei erantzuteko antolatu dira; gelak prestakuntza-saio espezifiko batzuk emateko prestatu dira; guneak eta pertsonak beharren arabera antolatu dira, lanen aurretik eta lanak bukatu ostean.

o Ekitaldiak antolatzea:

✓ Ertzaintzaren Eguna antolatzeko, guneak beste modu batean banatu ziren; XXIII. Promozioiko ikastaroa bukatu zuten ikasleei bulegoa eman zaie, Gabonetako bazkaria antolatu zen, komisario-kategoriara igo ziren pertsonen bulegoa eman zaie, ekitaldi-aretoko jardunaldiak eta beste ekitaldi espezifiko batzuk ere antolatu dira.

Kasu horietan guztietan, Mantentze Zerbitzuak lan horiek egiteaz gain, zerbitzu-kontratuaren enpresa esleipenduneko langileek egin duten lana – zehazki, altzariak, informatika-tresnak eta beste gai batzuk garraiatu, muntatu eta desmuntatzea– zuzendu, gainbegiratu eta kontrolatu du.

o Beste jarduera batzuk:

✓ Ekaitzek 2011ko maiatzaren 11n eta uztailaren 12an eragin zituzten kalteak kudeatu dira: kalteen inbentarioa eta balioespena egin da, beharrezko konponketak egiteko kudeaketak egin dira, dagokion txostena eta aseguru-etxearekin egin beharrezko kudeaketak egin dira: Lakuako Ondare Zuzendaritzarekin harremanetan jarri; aseguru-artekaritzarekin harremanetan jarri, perituarekin batera bisita egin, harik eta bidezko kalte-ordainak jaso arte.

✓ Erakunde autonomoko irakasleen ataletatik jaso diren lan- edo material-eskaerei erantzun zaie: esate baterako, gaiak probatzeko trenkadak eraiki dira, eta hainbat gai erosi dira: metalezko xaflak eta zurezko oholak; ituetarako euskarriak (hainbat euskarri artatu eta konpondu dira); istilu kontrako praktikak egiteko gaiak (azido sulfurikoa, bonbonak eta abar), buztina, UNE zintak, *Styrodur* plakak, suhiltzaileen gidaliburua gordetzeko kutxak, ohe-arropa, sukaldeko iragazkiak, sukaldeko tresneria...

✓ Beruna, letoia eta txatarra besterentzeko kudeaketak egin dira: eskaerak jaso dira, lana enpresa esleipendunarekin antolatu da, emaitza egokia lortu arte.

o Proiektuak eta obrak

- ✓ 2011n, honako obra eta proiektu hauek egin dira:
 - ✓ 6. txaletean: Gidatzea, Larrialdiak eta Babes Zibila: bulegoak egiteko lanak bukatu eta eman dira.
 - ✓ 7. txaletean: bulegoak egiteko lanak hasi dira.
 - ✓ Mantentze-tailerra: Udal lizentziak eskuratu dira; administrazio-espeditentea, jardueraren proiektua eta obra zuzentzeari dagokion lana egin da; eta obrak hasi dira.
 - ✓ A, B, D, eta E logeletako moduluak: Udal lizentziak eskuratu dira; espeditentearen jarraipena egin da, Erandioko eta Kontratazio-mahai nagusiko kideekin koordinatuz; eta jardueraren proiektua prestatu da.
 - ✓ Gelak eta guztientzako guneak: obraren proiektua eta jardueraren proiektua zehazteko lanak egin dira.
- Administrazioko kontratazioa
- ✓ Administrazioko kontratazioaren berezko lan batzuk egin dira: memoriak, ebazpenak, enpresei jakinarazpenak bidaltzea, kontratatzailearen profilean informazioa argitaratzea.
 - ✓ Aurrekontuaren kontrolari buruzko lan batzuk egin dira: II. eta VI. ataletako kontuen egoerei buruzko taula eguneratzea: saldoa eguneratzea, konpromisoak, ekimenak edo konpromisoak aurreikustea.
 - ✓ Azkenik, kontabilitate-arloari dagokionez, eskusiboki kontrolatu dira Mantentze Zerbitzuko albaranak eta fakturak, espeditente handiei zein txikiei buruzkoak.

2.2.4. Inprenta-zerbitzua

Inprentak zerbitzu ematen die Ikastegiari ez ezik Sail osoari ere, ahal den neurrian.

Inprentan jardueren erregistro-liburu bat dago, eta bertan hauxek jasotzen dira: Unitateak, Zerbitzuak edo Atalak noiz egin duen eskaera (eta zein herritan dagoen Unitate, Zerbitzu edo Atal hori) eta zenbat ale eskatu dituen.

- Ikastegiarentzako lanak:

Fotokopiak egin eta koadernatzea da lanaren muina. Fotokopia horiek erabiltzen dira hautaketa-prozesuen azterketetan, oharrak eta gaiak prestatzeko, etab.

Honako hauek dira Inprentako fotokopiagailu bakoitzean egin diren fotokopiakopuruak:

FOTOKOPIAGAILU-MODELOA	EGINDAKO KOPIAK
NUVERA 120	751.852

OCÉ 4120	1.114.319
OCÉ 3165	26.266
XEROX 3535, KOLOREZKOA	75.450
RISO, KOLOREZKOA	364.671
GESTETNER	31.546
KOPIAK GUZTIRA	2.394.104

Inprenta Ataleko lan-kopurua oso handia da. Fotokopiak ahalik eta hoberen erabiltzen saiatu da, eta ondorioz, 2010ean baino 708.074 kopia gutxiago egin dira 2011n; eginiko fotokopia-kopuruaren %22,8 murriztea lortu da, hain zuzen ere.

Atal honi dagokionez, irakasleen materiala estandarizatu beharko litzateke; horrela, ikasteko apunteak fotokopiatu beharra eta gastuak txikiagoak izango lirateke.

o Sailarentzako lanak:

Ertzaintzako unitateei, atalei eta polizia-etxeei emateko lanak ere egiten dira: Hauxe da 2011n egin diren lanen laburpena:

GAIK	ALEAK
BLOK LAUKIDUNA	396
TALOITEGI BATZUK	1.057
IBILGETZEKO AGINDUA ETA IBILGETZEKO AGINDUA KENTZEKOA	7.465
INPRIMAKI BATZUK	12.800
SALEROSKETEN ERREGISTRO-LIBURUA	20
AFIS FITXAK	11.715
GAIKA SAILKATUTAKO KARPETAK	19.715
ATXILOTUEN ERREGISTRO-LIBURUAK	35
ZITAZIO-ZEDULAK ETA HUTSEGITEN ZEDULAK	9.450
GASOLIO-TALOITEGIAK	1.750
ISUN-KOADRODUN TALOITEGIAK	726
BISITA-TXARTELAK	22.400
PAPER ZATIAK	16.750
SIGMA GUTUNAZALAK	1.250
GUTUNAZAL TXIKIA	9.500
GUTUNAZAL ERTAINA	19.550
GUTUNAZAL HANDIA	1.750
SEGURTASUN-POLTSA	4.150
GUTUNAZAL BARRUBIGUNAK	250
TESTIGU METRIKOAK	2.000
ZITAZIO-LIBURUAK	15
BAZKARI-TIKETAK BRIGADA MUGIKORRA	82.500
GIDABAIMENA ORDEZKATZEKO AGIRIA	4.000

GAIAK	ALEAK
DIPLOMA	1.000
TELEFONEMAK ERREGISTRATZEKO BLOKAK	30
ZENBAIT LIBURU	121
OKUPAZIO-AKTA	7.120
ISTRIPU-TXOSTENA	20.950

Honako taloitegi hauekin batera:

ZENBAKIDUN TALOITEGIAK	ALEAK
TELEFONEMEI BURUZKO LIBURUAK	22
GASOLIO-TALOITEGIAK	8.500

Inprentako langileek agiri horiek guztiak fotokopiatzeaz gain, lanak behar bezala amaitzen dituzte, hau da, fotokopiak koadernatu, sailkatu, jaso, moztu, paketetan sartu eta gratatu egiten dituzte, bidali aurretik.

o Beste lan batzuk

Horrez gain, bai Zuzendaritzarentzat, bai Sailarentzat, maketazio-lanak egiten dituzte, bai eta inprimatutako materiala nola antolatu, maketazioa nola diseinatu eta beste aholku batzuk eman ere. Adibide gisa, honako hauek dira lan horietako batzuk:

- ✓ Papera edo kartoi meheak tolestea, hainbat gauza egiteko: bisita-txartelak, txartel handiak, triptikoak eta abar.
- ✓ Informazio- eta publizitate-kanpainetarako maketazio-lanak egitea eta triptikoak eta liburuxkak diseinatzea.
- ✓ Ikastegiak antolatutako hainbat ekitalditarako gonbidapenak eta egitarauak diseinatzea eta maketatzea.
- ✓ Beste batzuk.

Gainera, inprentako langileak euren lanaren inguruko zereginenez ere arduratzen dira: enpresa esleipendunei beharrezko eskaerak egiteaz; materialak eta tresnak saltzen dituzten enpresako saltzaileei entzuteaz; makinen eta mantentze-lanen jarraipena egiteaz, bai eta Ikastegiko langileei zein Ertzaintzako polizia-etxe, unitate eta zerbitzuetako langileei zuzenean erantzuteaz ere, telefonoz edo posta elektronikoz.

Goresgarria da atal honetako langileen eraginkortasun handia, baina azpimarratu behar da eskaera-mailari eusteko, atal honetan langile gehiago behar direla; gaur egun, bi langile daude eta.

2.2.5. Arma eta Munizio Zerbitzua

Ikastegian lan egiten duen funtzionario bakarrak Ikastegiari ez ezik Ertzaintza osoari ere zerbitzu ematen dio.

Konpondu beharreko armen diagnostikoa egin behar da, eta dagokion enpresak armak konpondu edo kudeatu behar ditu. Arduradunari zeregin horretan laguntzen diote Tiro eta Arma Ataleko ertzainek (haiek diagnostikoa egiteko gai dira).

Honako hauek dira Zerbitzu honetako eginkizun nagusiak:

- ✓ Ikastegian egiten diren tiro-praktikak antolatzeko beharrezko materialak jasotzea eta ateratzea. Praktika horiek egiten dituzte, bai Ertzaintzako funtzionarioek (XIII. Promoziokoek, birziklapen-ikastarokoek, unitateen artean arma aldatzen dutenek), bai Udaltzaingoko ikastaroko ikasleek.
- ✓ Materialen kontrola eta jarraipena egitea (sarrera, irteera, erabilera), aplikazio egokien bitartez.
- ✓ Tiro-praktiketan erabilitako armen eta munizioaren kontrola egitea.
- ✓ Armategian eta tiro-zelaietan dauden makinaren jarraipena egitea (konprimagailuak, tornua eta fresatzeko makina).
- ✓ Praktikak egiteko beharrezko materialak eskatzea.
- ✓ Armak hartzea eta Ikastegiko bunkerrean gordetzea (han gordeta utzi nahi dituzten ertzainenak eta udaltzainenak).
- ✓ Armak jaso, eta arma berri bat agindu zaien Ertzaintzako funtzionarioei hura ematea. (2011n, gutxi gorabehera 1.000 pertsonari eman zaio arma berri bat).
- ✓ Kabinete eta Baliabide Orokorreko Zuzendaritzari gai zehatz batzuk eskatzea, eta arma aldatu duten ertzainei ematea. Eskaera horiek egitea, gaiak jasotzea eta banatzea.

Era berean:

- ✓ Ertzainen eta udaltzainen armak konpontzea, beharrezko aldaketak egitea eta haien funtzionamendua eta kalibratzea gainbegiratzea.
- ✓ Armak eta munizioa, bunkerrean utzitakoak, behar bezala mantentzea eta gainbegiratzea (sarrerak, irteerak eta zaintza).
- ✓ Ordezko piezak kontrolpean izatea, eta Estandarizazio Arloari jakinaraztea noiz erosi behar den gehiago.

2011n, honako gai hauek kudeatu dira:

GAIAK	ALEAK
Armetarako olioak	132
<i>Styrodur</i> bastidoreak	350
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, blindatuak	1.250.700
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, berunezko puntarekin	2.500
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, blindatze berezikoak	4.800
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, azpisonikoak	100
Jaurtigairik gabeko kartutxoak, 9 m/m-koak, PB	2.000
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, orratza babestekoa	150
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, punta SeCa	100
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, Simunition FX urdinak	13.150
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, Simunition FX zuriak	300
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, Simunition FX gorriak	12.550
9 m/m-ko kalibreko kartutxoak: PB, Securi blanc	2.000
9 m/m-ko kalibreko kartutxo laburrak (.380 A)	100
22 LR kalibreko kartutxo blindatuak	150
38 Spl kalibreko kartutxoak, blindatze berezikoak	600
38 Spl (+P) kalibreko kartutxoak	50
45 Acp kalibreko kartutxoak	200
270 kalibreko kartutxoak	40
6,35 (.25 A) kalibreko kartutxoak	50
7,65 (.32 A) kalibreko kartutxoak	100
12 x 70 kalibreko kartutxoak, <i>Brenneke</i> bala	77.310
12 x 70 kalibreko kartutxoak; perdigoiak: 24 g, 7 ½	23.950
12 x 70 kalibreko kartutxoak; perdigoiak: 32 g, 7 ½	22.500
12 x 70 kalibreko kartutxoak; perdigoiak: "00"	5.900
12 x 70 kalibreko kartutxoak; 9 bolako postak	34.450
12 x 70 kalibreko kartutxoak; 6 bolako postak; aldatua	2.000
12 x 70 kalibreko kartutxo bultzatzaileak	67.250
12 x 70 kalibreko kartutxoak. Izu kontrako jaurtirik gabekoak.	3.850
Kartoizko itu olinpikoa	1.000
Armekin erabiltzeko disolbagarriak	60

GAIAK	ALEAK
Brontzezko eskuilak (kalibrea: 9 eta 38)	150
Artilezko eskuilak (kalibrea: 9 eta 38)	150
Artilezko eskuilak (kalibrea: 12 eta 70)	60
Ilezko eskuilak (kalibrea: 9 eta 38)	120
Ilezko eskuilak (kalibrea: 12 eta 70)	60
Altzairuzko kiribildun eskuilak (kalibrea: 12 x 70)	60
Adabaki handia eta zuria (mila aleko biribilkiak)	10
Adabaki handia eta marroia (mila aleko biribilkiak)	5
Adabaki handia eta beltza (mila aleko biribilkiak)	5
Adabaki handia eta gardena (mila aleko biribilkiak)	15
Kartoi marroizko erdisilueta (IPSC)	1.000
Plastikozko erdisilueta. Itu urdina.	600
Plastikozko erdisilueta. Itu beltza.	860
Plastikozko erdisilueta. Itu gorria.	50
Plastikozko erdisilueta. Itu berdea.	1.030
Arloko lamina urdina, plastikozkoa.	1.800
Arloko lamina beltza, plastikozkoa.	1.650
Arloko lamina gorria, plastikozkoa.	1.200
Arloko lamina berdea, plastikozkoa.	650
Paperezko silueta errealista, 1. zenbakikoa.	540
Paperezko silueta errealista, 2. zenbakikoa.	540
Paperezko silueta errealista, 3. zenbakikoa.	430
Paperezko silueta errealista, 4. zenbakikoa.	420
Paperezko silueta errealista, 5. zenbakikoa.	450
Paperezko silueta errealista, 6. zenbakikoa.	470
Paperezko silueta errealista, 7. zenbakikoa.	450
Paperezko silueta errealista, 8. zenbakikoa.	420
Paperezko silueta errealista, 9. zenbakikoa.	340
Paperezko silueta errealista, 10. zenbakikoa.	420
Paperezko silueta errealista, 11. zenbakikoa.	400
Paperezko silueta errealista, 12. zenbakikoa.	490
Paperezko silueta errealista, 13. zenbakikoa.	500
Paperezko silueta errealista, 14. zenbakikoa.	495
Paperezko silueta errealista, 15. zenbakikoa.	200
Paperezko silueta errealista, 16. zenbakikoa.	650
Paperezko silueta errealista, 17. zenbakikoa.	200
Paperezko silueta errealista, 18. zenbakikoa.	250
Paperezko silueta errealista, 19. zenbakikoa.	435

GAIAK	ALEAK
Paperezko silueta errealista, 20. zenbakikoa.	600
Paperezko silueta errealista, 21. zenbakikoa.	290
Paperezko silueta errealista, 22. zenbakikoa.	280
Paperezko silueta errealista, 23. zenbakikoa.	250
Paperezko silueta errealista, 24. zenbakikoa.	250
Silueta bihurgarria, 2	65
Silueta bihurgarria, 3	30
Silueta bihurgarria, 6	15
Trapu zuriak (5 kiloko paketeak)	12

2.2.6. Biltegi Zerbitzua

Hauxe da 2011n Ikastegiko Biltegi Orokorrean egin diren jarduera nagusien laburpena:

- ✓ Astero, ohe-arropa garbitegira eramatea, garbi eta lisa dezaten; eta arropa garbia hartzea.
- ✓ Kanpoko enpresa esleipendunei egindako eskaeren ondorioz bidalitako gaiak jasotzea, SAP aplikazioan gaiak erregistratzea, eskatutako gaiak eta jasotakoak erkatzea eta gaiak biltegitratzea.
- ✓ Herrizaingoko Kudeaketa Teknikoko eta Azpiegituretako Zuzendaritzari eskatutako gaiak jaso eta banatzea.
- ✓ Euskal Herriko Polizia Ikastegiko arloek eta atalek egindako eskaerei erantzutea, eta eskatu dituzten gaiak bidaltzea.
- ✓ Ertzaintzaren XXIII. Promozioko ikasleen garaiera neurtzea, janzkiak Kudeaketa Teknikoko eta Azpiegituretako Zuzendaritzari eskatzeko, eta ikasleei entregatu ahal izateko. Janzkiak prestakuntza-ikastaroetan beharrezkoak ziren.
- ✓ XXIII. Promozioko prestakuntza-ikastaroa gainditu duten ikasleei beharrezko materiala ematea (uhaleria eta zorroak, gala-jakak, su kontrako jantziak eta abar), unitateetan praktikak egiten hasi baino lehen.
- ✓ XXIII. Promozioko prestakuntza-ikastaroa gainditu ez duten ikasleen materiala jasotzea eta hura suntsitzeko beharrezko kudeaketak egitea.
- ✓ XXIII. Promozioko ikasleei eta Udaltzaingoko ikastaroak egiten ari diren ikasleei janzki zehatz batzuk maileguz ematea.
- ✓ Herrizaingoak Euskal Herriko Polizia Ikastegian antolatu dituen ekitaldietan sortu diren protokolo-beharrei erantzutea (Ertzaintzaren Eguna, XXIII. Promozioan agindutako bulegoak ematea).



2.2.7. Ibilgailutegi Zerbitzua

Ibilgailutegi Zerbitzuak mota guztietako 150 ibilgailu kudeatzen ditu: ibilgailu arinak, errepideko motozikletak, mendiko motozikletak, furgonetak, anbulantziak, etab. Ibilgailuak gidatzeko eskolak emateko erabiltzeaz gain, ordena publikoan, poliziaren esku-hartzeetan, trafikoan eta larrialdietan ere erabiltzen dira. Horrekin batera, Ikastegian eskolak ematen dituzten langileek ere prestakuntza deszentralizatuetan erabiltzen dituzte, hautaketa-prozesuetan eskolak emateko, bileretara joateko, etab.

2011n, Kudeaketa Teknikoko eta Azpiegituretako Zuzendaritzarekin lan egin da, Saileko ibilgailu-*poola* Ikastegian (Araban) ezartzeko.

2.3. Informatika Arloa

Ikastegiko Informatika Arloak Informazio eta Telekomunikazio Teknologiaren Alorrarekin lan egiten du. Ikastegiak teknologia-sistemen, hardwarearen eta softwarearen arloan dituen beharrei erantzuten die, Sailarentzat zehaztutako teknologia-esparruaren barruan.

Halaber, 2011n, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EIJIE) zuzendu dituen proiektuetan parte hartu du.

Honako hauek izan dira Ikastegian bertan garatu diren jarduerak eta proiektu nagusiak:

2.3.1. Ikastegiaren jarduera kudeatzea

o Ikastegia kudeatzeko aplikazioa (*Gestión Academia*)

Ikastegiko jarduera “*Gestión Academia*” informatika-aplikazioaren bitartez kudeatzen da. Aplikazio horretan Ikastegiak antolatutako ikastaroei loturiko datuak jasotzen dira: hautaketa-prozesua bera, onuraz parte hartu izanaren ziurtagiriak, curriculum-egitura, irakasgai bakoitzean lortutako emaitzak eta abar. Horrez gain, ikasleen ikasketen historial guztiak erregistratzen dira.

Aplikazioa behar bezala mantentzeak etengabeko lanak egitea eskatzen du. 2011n, funtzionaltasun berriak gehitu zaizkio, eta datu-basearen bertsioa eta programazio-lengoaia aldatu dira.

o Ikastegiaren jarduerak iragartzea

Informatika Arloa arduratzen da deialdiak, emaitzak, Ikastegiaren jarduerak (jardunaldiak, adibidez) eta abarrak argitaratzeaz webgunean eta Gurenet gobernuaren intranetean.

Aplikazioa hautaketa-prozesuetan parte hartu duten hautagaien emaitzak jakinarazteko oso baliabide ona dela ondorioztatu da; gainera, oso harrera ona izan du kideen artean. Aplikazioari esker, hain zuzen, epeak murriztu ahal izan dira; bestela, ezinezkoa izango zatekeen dinamismo hori Ikastegian lortzea.

Nabarmentzekoa da zeregin hori egiteko arduradunen eraginkortasun handia.

o Hautaketa-prozesuak

Arlo honetan hautaketa-prozesuetarako beharrezkoak diren ariketen zuzenketa automatizatuak irakurgailu optikoen bitartez egiten dira, bai eta emaitza guztiak lortu, aztertu eta kudeatu ere. Jarduera hori XXIII. Promozioko hautaketa-prozesuan egin zen lehenengo aldiz. Ondoren, Ikastegiko ohiko prozesuetan erabili da; datu

hori garrantzizkoa da, 2011n egin diren prozesu-kopuru handiak kontuan hartzen badira.

Honako ariketa hauek zuzendu dira:



ARIKETAK			
Mota	Ertzaintza	Udaltzaingoa	Guztira
Gaitasun- ariketak	6	9	15
Ezagutzak	6	7	13
Inkesta	5	1	6
Eskumenak	2		2
Soziograma	1		1
Nortasuna	3	8	11
	23	25	48

Datuak kudeatu, inkestak, azterlan eta estatistikak egin eta albisteak iragarri dira webgunean eta Gurenet intranetean, honako hautaketa prozesu hauei buruz:

- ✓ Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Lehen Mailako Agenteen kategoriara igotzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Herri Segurtasuneko Ofizialordeen kategoriara igotzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Ikerketa Kriminaleko Ofizialordeen kategoriara igotzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ofizialen kategoriara igotzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Ertzaintzaren Egiterapen Eskalako Komisariordeen kategoriara igotzeko hautaketa-prozesua.
- ✓ Ertzaintzaren Egiterapen Eskalako Komisarioen kategoriara igotzeko hautaketa-prozesua.

- ✓ Ertzaintzaren Eskala Goreneko Intendenteen kategoriara igotzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Ertzaintzaren Eskala Gorenean eta Euskal Herriko Udaltzain Kidegoen Eskala Teknikoko Intendenteen kategorian sartzeko barne-sustapeneko prozeduretan parte hartzeko gaikuntza-ikastaroa.
- ✓ Ertzaintzaren Egiterapen Eskalan eta Euskal Herriko Udaltzain Kidegoen Eskala Teknikoko Komisarioen eta Komisariordeen kategorian sartzeko barne-sustapeneko prozeduretan parte hartzeko gaikuntza-ikastaroa.
- ✓ Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente kategoriako karrerako funtzionarioei zuzendutako ikastaroan, esku-hartze arloan gaitzekoan, sartzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako karrerako funtzionarioentzat *Lehergailuak Indargabetzeko – NEBK* ikastaroan sartzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Eskoltak Gaitzeko Ikastaroan sartzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Bide Segurtasunean Espezializatzeko Ikastaroan sartzeko hautaketa-prozedura.
- ✓ Euskal Herriko karrerako polizia-funtzionarioentzat Tiro Polizialeko Irakasleak prestatzeko eta trebatzeko ikastaroa.
- ✓ Ertzaintzaren 1. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.
- ✓ Ikastetxeetan autoikaskuntza-sistemaren bitartez euskara ikasteko ikastaroak.
- ✓ Udaltzain izateko hautaketa-prozedurak.

Lan hori ere eraginkortasun handiz ezarri da Ikastegian.

- **Jardunaldiak kudeatzea**

2011n, honako jardunaldi hauek antolatu dira Ikastegian:

- Delituari aurre egiteko eta prebenitzeko teknikei eta metodologiei buruzko nazioarteko polizia-jardunaldiak.
- Giza Eskubideen alorreko Polizia Jardunbide Egokiei buruzko jardunaldiak

Jardunaldi horiek antolatzeko, Informatika Arloak deialdia, matrikula edo izen-ematea eta jardunaldiei buruzko agiriak argitaratu zituen bai Ikastegiko webgunean, bai Gurenet gunean. Horrekin batera, bertaratuen zerrendak osatzeko, bertaratuen identifikatzeko eta bertaratu izanaren ziurtagiriak egiteko lanetan ere parte hartu zuen.

- **Euskarri mikroinformatikoa**

Ikastegiko ordenagailuak behar bezala mantentzeko lanak etengabeak dira: batetik, Ikastegian ordenagailu asko daudelako; eta, bestetik, bai administrazioko langileek, bai irakasleek egunero erabiltzen dituztelako. 2011n, 700 gorabehera erregistratu dira, eta informatika-arloko laguntza teknikoko zerbitzuak erantzun die.

Horrekin batera, honako lan hauek ere egin dira:

- ✓ Bi gela berriak instalatu eta konfiguratu dira, eta haietako bakoitzak 16 ordenagailu eta irakasleentzako hiru ordenagailu ditu. Helburua Euskarri, Larrialdiak kudeatzeko informatika-plataforma berria, martxan jartzea zen. Ordenagailu horiek hasteko bi aukera daude, eta ZUTABEko prestakuntza egiteko bide ematen dute.
- ✓ Informatika-gela bat prestatu da eta 37 ordenagailu jarri, polizia-aplikazioei buruzko ikastarorako.
- ✓ Inprenta Ataleko ordenagailu berriak instalatzea eta laguntza teknikoa ematea.
- ✓ Ordenagailuak berriro antolatu dira Langileen eta Aholkularitza Juridikoaren Arloan, bai eta Kontratazioaren eta Aurrekontuen Arloan ere.
- ✓ Ofizialak, komisariordeak eta intendenteak hautatzeko prozeduretan egindako audio- eta bideo-grabazioen segurtasun-kopiak egitea eta ikuskatzea.
- ✓ *Ingres* datu-basea, Ikastegia kudeatzeko aplikazioa barnean duena, migratzea edo eguneratzea.
- ✓ Ikastegia kudeatzeko aplikazioan sartzen diren ordenagailuetan *Open Road* programazio-lengoiaren bertsioa migratzea edo eguneratzea.
- **Beste jarduera batzuk**
 - ✓ **Zerbitzuak fakturatzea:** Euskal Herriko Polizia Ikastegiak antolatzen dituen jarduerak fakturatzea eta ordainaraztea (2011ko urriaren 26ko agindua, jardueren prezio publikoak ezartzen dituen).
 - ✓ **Destinoak banatu eta esleitzea:** Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako 23. Promozioko agenteei praktikak egiteko destinoak banatzea eta esleitzea. Praktika-aldietan destinoak banatu eta unitate guztietan esleitzea.
 - ✓ **Identifikazio bakarreko sistema:** Erabiltzailea nor den egiaztatzeko Oracle-ren eSSO tresna instalatzea, pasahitzak automatikoki kudeatzeko. Tresna horri buruzko gidaliburu azkarra egitea eta Ikastegiko inprentan inprimatzea.
 - ✓ **Ordu-kontrola bistaraztea:** Gurenet gunearen bitartez, Ikastegiko langileen ordu-kontrola bistarazteko aukera gaitzea.
- Edozein larrialdi-egoeratan helikopteroa erabili behar izanez gero, ikasitakoa lagungarria izatea.
- Helikopteroz egindako praktikak.

Hobetzeko eta kontuan hartu beharreko alderdiak

- Helikopterora hurbiltzeko praktikak egitea.
- Helikoptero-maniobrak.
- Informazio grafiko gehiago.
- Praktika gehiago eta teoria gehixeago ere bai.
- Prestakuntza-ordu gehiago.
- Seinaleak jartzeko praktika gehiago.
- Ibilgailuekin praktika gehiago egitea eta non jarri ikastea.
- Teoriari buruzko eskoletan ikasle gutxiago egotea. Azalpena ematen denean, gelako ikasleak bana daitezke, nahiz eta, ondoren, guztiak elkarrekin joan helikopterora.

4.2.1.13. Esku-hartzeak aireontzietan

Ikastaroa Foronda Aireportuaren, Larrialdien Arreta eta Meteorologia Sailaren Zuzendaritzaren eta Ikastegiaren artean antolatu, eta Forondako Aireportuan egin zen.

4.2.1.14. Laguntza psikologikoa larrialdietan

Larrialdi-zerbitzuko borondatezko langileei eta Larrialdien Arreta eta Meteorologia Saileko esku-hartzeen teknikariei eman zitzaien ikastaroa hiru lurralde historikoetan. Irakasleak kanpokoak ziren.

Ikasleek ikastaroaren honako alde hauek ontzat jo dituzte:

- Azalpenak argi eta zehatzak izatea.
- Esku-hartzearen hasieran zer egin eta zer ez ondo azaltzea.
- Hizlariak bizi izandako esperientziak.
- Benetako gertaerak azaltzea. Horrek ikasleei lagundu die gertaerak hobeto ulertzen.

Hobetzeko eta kontuan hartu beharreko alderdiak

- Kasu praktikoetan oinarritzea. Benetako egoerak. Nola jokatu behar den.
- Ikastaroa 112 zerbitzuaren beharrei egokitzea: esate baterako, telefono-arreta (ustez euren buruaz beste egin nahi dutenei, etab.), desagertutako senide baten bila dauden familiak nola tratatu (batez ere, senidea hilik agertzeko aukera asko dagoenean).
- Arnasketa-praktikak aulkirik gabeko gela batean egitea.

4.2.1.15. **Orientazioa eta GPSa (1. maila)**

Ikastaroa emateko, CapaeHorn enpresa kontratatu zen. Ikastaroa larrialdi-zerbitzuko borondatezko langileei eta Larrialdien Arreta eta Meteorologia Saileko esku-hartzeen teknikariei zuzendua zen.

Ikasleek oso ondo iritzi diete ikastaroari. Besteak beste, hauxe adierazi dute:

- “Nik, adibidez, ez nekien horri buruzko ezer. Orokorrean, teoria-eskolak izaten dira aspergarrienak, baina kasu honetan horiek ere ez dira izan, ba hori, aspergarriak; hasieran tutik ere ez ulertu arren, espero baino gehiago gustatu zaizkit teoria-eskolak. Praktikak oso dibertigarriak izan dira, eta bai ikaslearen bai laguntzailearen jarrera oso ona. Ikastaroa egiten jarraitzeko gogoarekin geratu naiz, ikasitakoa ez ahazteko”.
- “Pozten naiz GPSa ondo erabiltzen ikasi izanaz, botoiekin bueltaka ibili beharrean”.
- “Batez ere, orientazio-sistema eta GPSa”.
- “Oso erabilgarria eta garrantzitsua iruditu zait”.
- “Orokorrean, dena”.

Hobetzeko eta kontuan hartu beharreko alderdiak

- Praktika-ordu gehiago egitea.

4.2.1.16. ***Egitura itsutuak (txakurrak)***

Ikastegiak Babes Zibileko Eskola Nazionalarekin batera (Madrilgoa) kudeatu du ikastaroa, Ertzaintzaren Txakur Unitateak eskatuta. Astebetean prestakuntza-jarduerak egin dira Madrilgo Eskola Nazionaleko egitura itsutuetako zelaian. Ez dago ikastaroari buruzko iritzirik.

4.2.1.17. **Suteak itzaltzea eta salbamenduak (Suhiltzaile-kidegoan sartzeko ikastaroa)**

Ikastegiak Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatu duen Lankidetzeta Hitzarmen baten bitartez antolatu da ikastaroa. Helburua Vitoria-Gasteizko suhiltzaileen lan-poltsa bat osatzeko hautagaiak trebatzea izan da.

Ikastaroak 325 ordu iraun du, eta maiatzetik uztailera bitarteko hilabeteetan egin da. Kanpoko irakasleak kontratatu dira (Vitoria-Gasteizko Suhiltzaile Zerbitzuko suhiltzaileek, hain zuzen), eta ikastaroa haiek eta Ikastegiko irakasleek eman dute. Teoria-eskola guztiak Ikastegian eman arren, praktikak Ikastegian eta Vitoria-Gasteizko suhiltzaile-parkean egin ziren.



Ikasleek ontzat eman dituzte honako alde hauek:

- Ikastaroa ARKAUTEn egin izana (erosotasuna, gela propioa izatea, pertsonen eskuragarritasuna, desenkartzelatze-autoak, egunaren amaieran otordua egiteko aukera, garajeak erabiltzea, estalkiak...)
- Suteak itzaltzeko barneko modulua eta beste parke batzuetako suhiltzaileak etorri izana.
- Irakasleak oso adituak ziren, eta hori oso baliagarria iruditu zait; gainera, motibazio handia zeukaten eta euren aldetik dena jarri dute eskolak ondo emateko. Hori dela eta, ikastaroa ondo samar baliatu eta ezagutza egokiak eskuratu ditudala sentitzen dut.
- Ondo deritzot irakasle gehienak suhiltzaile profesionalak izateari. Haiek gaiei buruzko benetako gertaerak azal ditzakete eta horrek gaiak hobeto ulertzen lagundu du.
- Ikastegiko eta Suhiltzaile Parkeko giroa, etxean bezala sentitu naiz.

- Ikastegian otorduak egiteko aukera eman izana; horrela, ikasleen arteko harremanak gelatik kanpo ere sustatu dira.
- Ikastegiko janaria, aparta.
- Irakasleen eta ikasleen arteko harremana .
- Arkauteko instalazioak

Hobetzeko eta kontuan hartu beharreko alderdiak

- Ikastaroaren moduluen hurrenkera; eta kasu batzuetan, iraupena.
- Ikasleei emandako ekipamendua.
- Irakasgai batzuetan “dantza” gehiegi Arkauteko eta Gasteizko suhiltzaileen artean.
- Ikastegiari ikastaro hauek antolatzeko beharrezko baliabideak ematea.
- Irakasgaien hurrenkera hobeto antolatzea, irakasgai batean ikasitako ezagutzek hurrengo irakasgaia garatzen lagun dezaten.

4.2.1.18. Ur-erreskateak azalean

Ikastegiak eman du ikastaro osoa, ikastegiko irakasleen bitartez. Bost egun iraun du: hiru egunetan Ikastegiko instalazioetan eman zen ikastaroa (gelan eta igerilekuan) eta bi egunetan Bilboko itsasadarrean.

Hamabost ikaslek parte hartu zuten eta guztiei azterketa teoriko bat eta hiru azterketa praktiko egin zitzaizkien. Guztiek nahiko bat baino emaitza altuagoa lortu zuten azterketetan, ikasle bat izan ezik. Ikasle horrek, inguruabar pertsonalak zirela eta, ezin izan zuen azterketarik egin.



Ikastaroaren hasieran, ikasleek nolabait ikastaroaren aurkako jarrera adierazi zuten, zerbitzuak etortzera behartu zituelako. Egoera bideratu zen, eta, azkenean, onak izan dira emaitzak.

Hobetzeko eta kontuan hartu beharreko alderdiak

- Ikastaroa eman ahal izateko, nor bere burua babesteko tresneria (neopreno-jantziak, segurtasun-betaurrekoak, hegalak, etab.), irakasleei emandakoa, merkataritza-banatzailerik batek mailegatu zituen, salbamendu-jakak eta kaskoak izan ezik (horiek erosi ziren).
- Bilboko suhiltzaile zerbitzuak eman zuen ikasleek jasotako tresneria (bizkarrezurreko lesioa izan dezaketen biktimak ateratzeko taula flotatzailea, burua inmovilizatzeko tresneria, hegalak ikasleentzat, etab.).
- Etorkizuneko ikastaroei begira, tresna horietako batzuk erosi beharko lirateke, eta beste batzuen eskuragarritasuna arautu, baliabide horiek dituzten erakundeekiko akordioen bitartez.

4.2.2. Beste prestakuntza-jarduera batzuk

Honako prestakuntza-jarduera hauek 2011n egitekoak ziren, baina azkenean ez dira antolatu:

4.2.2.1. Esku-hartzeak ibilgailu berezietan

Prestakuntza-jarduera hori suhiltzaileek eskatu zuten, ibilgailu elektrikoen egitura ezagutzeko, haietan esku hartzen jakiteko eta arrisku elektrikoaren aurrean nor bere burua babesteko oinarritzko arauak ezagutzeko.

4.2.2.2. Baso-suteei buruzko ikastaroa

Ikastegian ematea aurreikusita zegoen, Ikastegiak Kataluniako *Institut de Seguretat Pública*-rekin duen hitzarmenaren bitartez, eta *GRAF-Divisió Grups Operatius Especials*-en *Unitat Tècnica*-ko irakasleek emango zuten.

Ikastaroa urrian hasia aurreikusita zegoen, baina atzeratu behar izan da, haiek baso-suteen "kanpaina" deritzotenari loturiko ezustekak luzatu baitira. Guztiok elkarrekin erabaki genuen ikastaroa 2012ko lehenengo seihilekoan egitea.

4.2.2.3. Uholdeak, ibaialdiak eta meteorologia

Larrialdi-zerbitzuko eta Babes Zibilaren arloko borondatezko langileei zuzendua zen. Urrian hasia aurreikusita bazegoen ere, bertan behera geratu da aurrekontu-arazoak direla eta.

4.2.2.4. *Proposatu diren beste prestakuntza-jarduera batzuk*

Urtean zehar, berariazko prestakuntza-ikastaroak proposatu dira, baina azkenean ez dira antolatu. Besteak beste, honako hauek:

- Nork bere burua babesteko neurriak, etxebizitzetan eta industria-enpresetan elektrizitate-etendurak gertatzen direnean (suhiltzaileei zuzendua).
- Igogailuetan egin beharreko erreskateak (suhiltzaileei zuzendua)
- Jakinarazpenak prentsari emateko gaitasunak (DAEM).
- Esku-hartzeak tangekin (DAEM).
- Esku-hartzeak tuneletan.

5. Ekitaldiak, jardunaldiak eta biltzarrak

2011n, Ikastegian ekitaldi, jardunaldi eta biltzar ugari egin dira; izan ere, segurtasun publikoko eta pribatuko profesionalen topagune bihurtu da.

Ikastegiak antolatu dituen jardunaldiak

Delituari aurre egiteko eta prebenitzeko teknikei eta metodologiei buruzko nazioarteko polizia-jardunaldiak.

Argentinako, Uruguayko, New Yorkeko, Valentziako eta Kataluniako polizia eta legelari adituek eta Ertzaintzak berak parte hartu zuten.

Arkauten, martxoaren 15 eta apirilaren 7 bitartean.

Plaza guztiak bete ziren.

2011ko Berdintasunerako Forua

“Emakumeen parte-hartzea polizia-kargu eraginkorretan” Arkauten, 2011ko ekainaren 17an.

Zuzendari andreak eta Ertzaintzako lehen komisario andreak eman zuten hitzaldia. Emakumeak, gizonak, Andaluziako udaltzainak bertaratu ziren, besteak beste.

Giza Eskubideen Alorreko Polizia Jardunbide Egokiei buruzko jardunaldiak.

Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Baliabideetako Zuzendaritzarekin batera antolatu ziren.

Arkauten antolatu ziren, urriaren 27 eta 28 bitartean.

Irakasleak Barne Ministerioko eta honako kidego hauetako adituak ziren: Mossos de’Esquadra, Nafarroako Foru Polizia, Alacanteko Villa Real-eko Udaleko udaltzainak, Castellóko udaltzainak, Fuenlabradako udaltzainak eta ertzainak.

la plaza guztiak bete ziren, eta, bai eztabaida, bai esperientzien elkartrukea oso aberasgarriak izan ziren. 2012an lan egiten ari da, jardunaldien II. edizioa antolatu ahal izateko .

Parte-hartzea biltzarretan eta jardunaldietan

Larrialdi Zerbitzuen X. Biltzarra, Vitoria-Gasteizko Udalak eta Suhiltzaileen Teknikarien Elkarte Profesionalak antolatua.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko apirilaren 13 eta 15 bitartean.

Ikastegiko zuzendariak hitzaldi bat eman zuen, Euskadiko larrialdi-zerbitzuetako langileen trebakuntzari buruz.

Integra 2011

Biltzarra Zaragozan antolatu zen 2011ko ekainaren 7, 8 eta 9 bitartean.

Ikastegiak parte hartu zuen Ertzaintzaren erakustokian eta honako hitzaldi honetan: “*Planes de Formación policial y su relación con la carrera policial*” (Poliziak prestatzeko planak eta polizia-karrerarekin duten lotura). Hitzaldia Kataluniako

Institut de Seguretat Pública-ko zuzendariarekin eta Madrilgo Erkidegoko Polizia Ikastegiko zuzendariarekin batera eman zen.

Arriskuen eta Larrialdien kudeaketari buruzko V. jardunaldiak

Donostia-San Sebastián Udalak antolatuak. Zuzendariak jardunaldien amaiera-ekitaldia aurkeztu zuen. 2011ko ekainean.

Herri Administrazioetan enplegurako prestakuntza jasotzeko e-learning sistema erabiltzeari buruzko V. jardunaldiak

Ikastegiak hitzaldi bat eman zuen ohiko hezkuntza-sistema aldatzeari buruzko jardunaldian. Valladoliden, 2011ko irailaren 16an.



“European training Scheme” (Poliziak trebatzeko Europako Plana: Europar Batasuneko politika berrirako ideiak).

Bruselan, 2011ko urriaren 6an.

Ikastegiko Zuzendaritzak eta Ikasketa Burutzak parte hartu zuten Espainiako ordezkaritzan, Barne Ministerioko Segurtasun Azterlanetako kabineteak gonbidatuta (CEPOL europar ekimena Espainian kudeatzen du). Mintegi horretan eztabaidatu zuten Europako Batzordeko Barne Arazoak kudeatzeko Zuzendaritza Nagusiak egindako agiri ez-ofiziala: *“Perspectiva sobre la política de la UE en materia de formación de la policía”* (EBko politikaren gaineko perspektiba, polizien trebakuntzari dagokionez).

Ekitaldiak eta jarduerak Arkauten

Arkauteko I. Tiro Txapelketa

Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoko polizien, foru polizien eta ertzainen arteko tiro-txapelketa, Ikastegiko lurpeko tiro-zelai berria inauguratzeko antolatua. Arkauten, uztailaren 27an.



Ertzaintzaren II. Eguna

Arkauten 2011ko urriaren 9an.

Memoriaren eguna

2011ko azaroaren 10ean

XXIII. Promozioiko kredentzialak ematea 2011ko abenduaren 16an



6. 2011ko proiektuak eta gauzatutako egitasmoak

6.1. Lineako prestakuntza-plataforma garatzea: (Arkampus)

Arkampus deritzon lineako prestakuntza-plataforma garatu da argi bereizten diren bi ildori jarraituz: batetik, tresna sortu da; eta, bestetik, edukiak osatu eta konfiguratu dira.

6.1.1. Proiektuaren hasierako fasea

Avanzo enpresa kontratatu da, proiektu osoa garatu eta ezartzeko ondorioetarako. Horrez gain, Ikastegian aditu batek proiektua garatzen lanaldi osoa ematen du. Bera arduratzen da laguntza teknikoa emateaz, garapenari buruz aholkatzeaz eta proiektuaren egikaritzapena gauzatu eta koordinatzeaz, Avanzo enpresarekin batera.

Urtearen hasieran, proiektuaren berri eman zioten Ikastegiko egitura funtzionalari, eta pertsona-talde batek aldaketa-estrategiei buruzko prestakuntza jaso zuen.

6.1.2. Plataforma osatzea

Garatu beharreko edukiak, funtzioak, erantzukizunak eta egikaritzapen-epeak zehaztu ziren.

Egun arte, honako atal hauek garatu dira:

- Erkidego birtualaren pertsonalizazio grafikoa.
- Informazio- eta funtzio-eskakizunen azterketa.
- Softwarearen azpiegitura.
- Erabiltzaileen alta-eskabideak kudeatzea eta baliozkotzea.
- CSV fitxategiaren egitura (Arkampus-*Gestión Académica*)

Abenduaren hasieran, prestakuntza kudeatzearen arloko (kudeaketa akademikoa) langileek lineako ikastaroak kudeatzen jakiteko prestakuntza jaso zuten (altak, bajak, hasiera, informazioa, ikastaroen itxiera, ziurtagiriak eta abar).

6.1.3. Edukiak osatzea

Hasiera batean, honako eduki hauek proposatu ziren:

- Zeharkako ikastaroak, Avanzo enpresarekin kontratatuak: bulegotika, hizkuntzak, arriskuak prebenitzea, datuak babestea, etab. Kontratazio-

eskaintzan 30 ikastaroko lote bat proposatu zen, Avanzok dituen ikastaroen artean aukeratzekoa. Guztira 200 ikastaro inguru aurkeztu ziren, eta ikastaro haietatik 19 aukeratu ziren; Arkampus plataformak eduki beharreko kalitateari eta interesari erantzuten dietenak, hain zuzen.

- Berezko eta berariazko edukiei dagokienez, ikastaro interesgarrien zerrenda bat osatu eta lehentasun-maila ezarri da. Ondoren, aurrekontuek onartzen zituzten ikastaroak egin dira, besteak beste:
 - DAEMek lehendik hasia zuen plataformari buruzko prestakuntza ematen jarraitzea erabaki da. Larrialdien eta babes zibilaren kudeaketaren ingurukoa da.
 - Etxeko indarkeriari eta genero-indarkeriari buruzko prestakuntza osatzea. Prestakuntza horren edukiak egiten ari dira Psikologia, Soziologia, Zuzenbide eta Polizia Teknika sailtako prestakuntza-atalekin koordinatuz.
 - Genero-indarkeria jasaten duten Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin elkarlanean bideo bat egitea aurreikusi da, ertzainak etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren arazoarekin sentikor bihurtzeko. Grabazioa 2012ko urtarrilerako aurreikusi da.
 - Sailburuaren agurra bideoz grabatu da. Madrilgo enpresako estudioetan lehen irudi landugabeak grabatu ziren. Ikastegian bideoaren azkeneko edizioa egin eta gainbegiratzen ari da.

6.2. Argitalpenak

6.2.1. "ARGITALETXE" ERREGISTRATZEA

Apirilean eta maiatzean, Kultura Ministerioaren mende dagoen Espainiako ISBN agentziarekin beharrezko izapideak egin ziren, Euskal Herriko Polizia Ikastegia "Argitaletxe" erregistratzeko, ondore guztietarako, eta erregistroa etorkizuneko izapideetan kontuan hartzeko. Ekainean, "Argitaletxe" ("Editorial") gisa eratu da, eta hauxe da erregistro-zenbakia: 978/84/615.

6.2.2. Argitalpenen edizioa



6.2.2.1. Manual del Bombero (Suhiltzaileen gidaliburua)

2010eko abenduaren hasieran, suhiltzaileen gidaliburu bat osatzeko proiektuari ekin zitzaion, eta 2011ko urtarrilean proiektua bultzatu da. Gidaliburuan 54 egile parte hartu dute modu altruistan. Gehienak suhiltzaileen zerbitzukoak dira, eta egile-eskubideak Ikastegiari laga dizkiote. Izan ere, Ikastegiak ditu erabilitako material guztien egile-eskubideak: irudienak, argazkienak eta testuenak; horrela, errazagoa da edukiak berriro editatzea, sarean sartzea, etab.

Lanaren alde teknikoa koordinatu du kanpoko langile batek (kontratatu), eta Ikastegia gidaliburua editatzeko koordinazio orokorraz arduratu da (egile-eskubideen kontratuak, ISBN eskabidea, administrazio-izapideak, diseinua eta abar).

Azkenean, *Manual del Bombero* gidaliburuaren edizioak 21 liburu ditu, bost gairen inguruan sailkatuta. Prentsaurreko bat egin zen irailaren 7an, gidaliburuaren berri

emateko. Prezioa honela ezarrita geratu da: gidaliburuko 150 €, eta liburuko 7 €. Nabarmenezkoa da ezarritako prezioak publikoak direla; gutxi gorabehera edizio-kostua da. Helburua gidaliburua suhiltzaileen artean zabaltzen eta erabiltzen laguntzea izan da.



TÍTULOS DE LA COLECCIÓN MANUAL DEL BOMBERO

Volumen 1 Operaciones de salvamento

- 1.1 Rescate en accidentes de tráfico
- 1.2 Trabajos y rescates en altura
- 1.3 Rescate acuático en superficie
- 1.4 Urgencias sanitarias para bomberos

Volumen 2 Control y extinción de incendios

- 2.1 Principios de lucha contra incendios
- 2.2 Incendios en interiores
- 2.3 Incendios forestales
- 2.4 Prevención de incendios

Volumen 3 Fenómenos naturales y antrópicos. Operaciones de ayudas técnicas

- 3.1 Riesgos de los fenómenos naturales
- 3.2 Riesgo en accidentes con MMPP
- 3.3 Redes de distribución e instalaciones
- 3.4 Principios de construcción y estabilización de estructuras

Volumen 4 Uso de recursos operativos

- 4.1 Equipos de protección respiratoria
- 4.2 Medios de extinción. Operaciones e instalaciones con mangueras
- 4.3 Bombas. Hidráulica básica para bomberos
- 4.4 Vehículos de los S.P.E.I.S
- 4.5 Manejo de herramientas y equipo

Volumen 5 Organización y desarrollo profesional

- 5.1 El Sistema Vasco de Atención de Emergencias
- 5.2 Seguridad y salud laboral
- 5.3 Aspectos legales de la intervención. Responsabilidades, deberes y derechos
- 5.4 Psicología de emergencias

6.2.2.2. Primeros auxilios psicológicos (Lehen sorospen psikologikoak)

Maiatzean, lehen sorospen psikologikoei buruzko liburua egiteko taldea osatu zen. Taldean larrialdi-zerbitzuko hiru egilek parte hartu dute modu altruistan. Guztiak psikologoak dira, eta esperientzia dute hondamendi-egoeretan.

Erakundearenak ez diren arazoengatik, edukien garapena eten zen hiru hilabetez, eta azkenean, abenduan amaitu zen testuen edukiak prestatzen. 2012ko urtarrila eta otsaila bitartean liburua maketatzea eta inprimatzea aurreikusita dago.

6.2.2.3. Beste argitalpen batzuk

Era berean, proiektu-fasean geratu dira Lehen Sorospenak Mendian liburua (Ikastegiarenak ez diren arazoak direla eta) eta hiru tesinaren argitalpenak. Tesina bat larrialdien alorrekoa da (esku-hartzeak ibilgailu berezietan) eta beste biak Ertzaintzako komisarioen kategoriara igotzeko ikastaroan egin dira.

6.2.2.4. Argitalpenak saltzea eta banatzea

Ikastegiak argitalpenak saltzeko eta banatzeko kanal propio ez duenez, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bitartez egiten du. Zerbitzu horren eta hitzartutako banatzaileen bitartez (EGARTORRE eta ELKAR), liburuak liburu-dendetan saltzen dira (eskuko salmenta), argitalpen-zerbitzutik bertatik.

Liburua liburu-dendetan argitalpen-zerbitzuaren bitartez saltzen denean, zenbateko osoaren diru-sarrera gordetzen du Ikastegiak. Banatzaileen bidez saltzen denean, ordea, azkeneko prezioaren ehuneko berrogei edo berrogeita hamarreko deskontua ordaintzen du. Baldintzak ezarrita daude Argitalpen Zerbitzuko banaketa-espeditentari buruzko kontratuan. Abenduaren 31ra arte, guztira 531 ale bananduta zeuden.

Beharrezko kudeaketak egiten ari dira, salmenten diru-sarrerak Ikastegiaren aurrekontuan sartzeko eta saltoki elektronikoko bat edukitzeko.

6.2.2.5. Markak erregistratzea

Beharrezko izapideak egin dira **Arkaute Academia** marka zein logotipoa eta **Arkampus** marka Industria, Turismo eta Merkataritza Saileko Espainiako Patente eta Marka Bulegoan erregistratzeko. 2011ko azaroaren 18an, agentziak bidalitako idazki batean jakinarazi zigun 2011/11/28ko BOPIn (Industria Jabetzaren Aldizkari Ofiziala) marka bien erregistroa, M 3.006.023. zenbakiduna, argitaratua zela.



6.2.2.6 Ikastegiaren argitalpen-jarduera hobetzeko alderdiak

Argitalpen-logistikari buruzko honako behar hauei erantzun behar zaie:

1. Esparru egokiak edukitzea, materialak behar bezala biltegitzeko.
2. Argitalpenak banatzeko kudeaketa administratiboa: eskaerak jasotzeko eta eskatutakoa bidaltzeko langileak izendatzea (garraiolariak kontratatzea).
3. Salmentak eta ordainketak kudeatzea: salmenta eta lineako ordainketa.
4. Inprentari tresna egokiak ematea, kanpoko inprenta-enpresak kontratatu behar ez izateko eta, ondorioz, gastuak murrizteko.

5.

6.

6.3. Unibertsitate Titulu propioa: UPV/EHUko Herri Segurtasunaren eta Larrialdien Kudeaketa Gradua, Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren lankidetzarekin

2010ean, beharrezko antolaketa- eta teknika-lanak aurrera eramán ziren, UPV/EHUren eta Ikastegiaren artean titulu propio bat izateko proposamena egite aldera. Urte beraren amaieran, proposamena Unibertsitateko errektore-organoei aurkeztu zitzairen, onar zezaten. Ondoren, 2011-2012 ikasturtean, proiektua martxan jarri zen.

Gradua, 180 ECTS (*European Credit Transfer System*) kreditukoa, hiru ikasturtean dago egituratua, eta ikasturteei 60 ECTS kreditu bana dagokie.



Lehen mailan, ikasle guztiak irakasgai berak dituzte. Barne Ministerioaren aurrean homologatua izan ahal izateko beharrezko edukiak jaso dira, bai eta alorrean araututa dagoen gaikuntza profesional bat lortzeko ere, hau da, Segurtasun arloko zuzendari jardun ahal izateko. Horrez gain, Arriskuak prebenitzeko oinarritzko prestakuntza eta Segurtasun arloko sailburua izateko gaikuntza profesionala lortzeko azterketarako behar diren edukiak ikasten dira.

Bigarren mailan larrialdien eta segurtasunaren arloetako espezialitateak ikasiko dira; horregatik, gaiak sakonago landuko dira larrialdien eta babes zibilaren arloetan edo herri-segurtasunaren edo segurtasun pribatuaren arloan espezializatzen laguntzeko.



Hirugarren urtean, praktikak egingo dira, batik bat. Ikasleek graduaren amaierako lan bat egiteaz gain, praktika-aldia bete beharko dute alorreko erakundeetan eta enpresetan; horretarako, praktika-hitzarmenak egingo dira enpresa edo erakunde egokiekin.

Espedientea izapidetzeko eta proposamenaren onarpena (batzordeek eta azpibatzerdeek emandakoa) jasotzeko lan handia egin behar izan zen. Azkenean, ekainean onartu zuten, eta proposamena martxan jarri zen. Laz ez zen publizitatea egiteko denborarik egon, eta prestakuntza-eskaintzan gutxienez 20 eta gehienez 40 plaza eskaini ziren.

Eskaintzak oso erantzun handia jaso zuen, eta 180 pertsonak matrikula egiteko eskatu zuten, arlo guztietatik etorrira: ertzainak, udaltzainak, suhiltzaileak, larrialdi-zerbitzuetako borondatezko langileak, enpresa-segurtasunaren arloko arduradunak, etab. Tituluko Batzorde Akademikoak (Ikastegiko ordezkari bat, tartean) egin zuen hautaketa, UPV/EHUK titulu propioetarako ezarri dituen irizpideei jarraituz.

Titulu-ikasketak irailean hasi ziren, eta dagoeneko lehen lau hilabeteak igaro dira. Egun arte, irakasleek eta ikasleek oso egoki deritzote graduari.

Ikastegiaren eta Unibertsitatearen arteko lankidetzaren Tituluaren lehen ediziorako zehaztu da, zehazki, honako ikasturte hauetarako: 2011-2012, 2012-2013 eta 2013-2014. Tituluaren 2. ediziorako izapideak egiten ari gara.

Lankidetzaren horretarako, dagokion Lankidetzaren Hitzarmena sinatu da: Gobernu Kontseiluak 2011ko irailaren 27ko bileran onartu zuen, eta Hitzarmena urriaren 3an sinatu zuten Akademia Antolakuntzako errektoreordeak eta Euskal Herriko Polizia Ikastegiko zuzendariak.

6.4. Bilboko Portu Agintarietako lankidetzaren hitzarmena

Lankidetzaren Hitzarmen bat sinatu da Bilboko Portu Agintarietako; horren ondorioz, Bilboko Portuko polizia segurtasun arloan trebatzeko I. ikastaroa martxan jarri da.

6.5. Polizia Ikastegiko Ikus-entzunezko fitxategiak katalogatzea eta digitalizatzea

Ikastegiko instalazioetan, zehazki, ikus-entzunezko lehenengo txaletean, euskarri anitzeko argazki eta bideo ugari aurkitu zen. Egoera txarrean zeuden, eta ez zegoen haiek eskuratzeko edo ikusteko kontrolik. Era berean, edukiak ez zeuden katalogo edo inbentario batean jasota, eta ez zegoen edukiei edo haien garrantziari buruzko informaziorik.

6.5.1. Argazkien eta bideoen inbentarioa eta katalogoa egitea eta horiek artxibatzea

Proiektu-fase honetan, Ikastegian barreiaturik zeuden ikus-entzunezko baliabideak xehetasunez ezagutu eta antolatu ziren. Guztira **1.215 bideo eta 20.200 argazki baino gehiago** dira, eta orain fitxa automatizatu baten bitartez kontsulta daitezke.

Honako lan hauek ere egin ziren proiektu-fase horretan:

- Informazioa aztertzea eta sailkapen-koadroa egitea (oinarrizkoa)
- Argazkien eta bideoen inbentarioa jasotzeko datu-basea sortzea
- Inbentariatu beharreko gaiak aukeratzea
- Gaiak gune jakin batean ordenatzea eta ipintzea
- Garbitzea
- Ikus-entzunezko gaiak inbentarioan (serieetan) deskribatzea: argazkiak, bideo eta audio-zintak



6.5.1.1. Sailkapen-koadroa

Sailkapen-koadroan fitxategi guztiak egituratu dira: batetik, *Arcaute Academia* polizia ikastegian 1982. urteaz geroztik sortu diren materialak; eta, bestetik, Ertzaintzari eta Herrizaingo Sailari dagozkienak. Atal horiek azpi-atal batzuetan banandu dira:

A. EUSKAL HERRIKO POLIZIA IKASTEGIA

- A.1. Prestakuntza (ikastaro teoriko eta praktikoak, hitzaldiak, jardunaldiak... ertzainei edo beste kidego batzuei zuzenduak)
- A.2. Promozioak (hautaketa-ariketak, trantsizio-urratsak, bulegoak ematea)
- A.3. Kultura- eta jolas-jarduerak (argazki-txapelketa, aretoko futbol-txapelketa, Santa Ageda eguneko kantuak, kirol-jardunaldiak, logotipoen txapelketa, liburuen aurkezpenak)
- A.4. Azpiegiturak (eraikina...)
- A.5. Langileak (irakasleen, Eli Galdos-en eta Jon Etxeberria-ren agurrak; bazkari batzuk, administrazioko langileen argazkiak)
- A.6. Ikastegian jasotako bisitak (hainbat pertsona ospetsu)
- A.7. Ertzaintzaren Museoa



B. ERTZAINZA ETA HERRIZAINGOA

- B.1. 36ko Ertzaintza (Arkauten egindako gorazarreak, Ertzaintzaren 50. urteurrena zela eta; ertzainen argazkiak, Lauaxetari egindako omenaldia, urteko bilerak Durangon)
- B.2. Baso-kidegoak (mikeleteak, miñoiak). Argazki zaharrak eta modernoak daude.

- B.3. Uniformeak eta ikurrak (zenbait uniforme, armari eta estandarteak)
- B.4. Polizien eta suhiltzaileen arteko joko olinpikoak
- B.5. Instalazioak, ibilgailutegia, armak eta munizioa (polizia-etxeen egoitzak edo beste bulego batzuk, ibilgailuak, armak)
- B.6. Kidegoaren jarduerak (istilu kontrakoak; bizikleta-lasterketak; Europako Mendietan izandako helikoptero-istripua; Gorbea mendian izandako abioneta-istripua; manifestazioen jarraipen-irudiak; paisaien eta herrien argazki panoramikoak; Ikastegiaren aurka granadaz egindako atentatuaren ikerketa; ate irekiko jardunaldia; Ertzaintzaren parte-hartzea Eusko Jaurlaritzaren 50. urteurrenean, Gernikan; Batzar Etxea berriro inauguratzeko ekitaldia; lehendakariak karguaren zina egiteko ekitaldia...)
- B.7. Musika-banda eta *Ertzaintza Gaur* egunkaria
- B.8. Zuzendaritza (goi-mailako kargudunen argazkiak, Segurtasun Batzarrarekin izandako bilerenak, edo kargudunen argazkiak).
- B.9. Omenaldiak (eraileak, hil kaperak, hiletak, suontzi-ekitaldiak, dominak emateko ekitaldiak, ertzainen aldeko manifestazioak... Aurkauten eta beste toki batzuetan egindako ekitaldiak)

6.5.1.2. Argazki-funtsa

Honako hauek daude argazki-funtsean:

- Paper-argazkiak: 20863 (haietako batzuk errepikaturik daude)
- Argazki digitalak: 6052
- Diapositibak zazpi kutxa txikitan: 235
- Negatibo-albumak: 9
- Diapositiba-albumak: 3
- Negatibo- eta diapositiba-albumak: 1

6.5.1.3. Ikus-entzunezkoen funtsa

Ikus-entzunezkoen funtsean daude honako hauek:

- *U-matic* bideoak: 520
- *Beta* bideoak: 5
- *VHS* bideoak: 438
- *Mini-DV* bideoak: 55
- DVD bideoak: 150
- Video8: 4
- Super 8 motako filmak: 8
- Audio-zintak: 47

6.5.2. Ikus-entzunezkoen funtsa digitalizatzea

Argazkien fitxategiak digitalizatzen bukatu da, eta, gaur egun, Datu Baseko merkataritza-aplikazio baten bitartez kudea daiteke, *thumbnail* edo kalitate txikiko argazkietan oinarritua. Era berean, argazki guztiek euskarri eta kalitate nahikoa dute inprimatuak izateko.

Artxibategiko fitxategien kalitate teknikoa ez da oso handia, bai materialen jatorriagatik, bai materialak egon diren baldintzengatik. Hala ere, interes historiko eta dokumentala du Herrizaingo Sailarentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat.



Bideo-materiala digitalizatzeko azken lanak egiten ari dira.

6.6. Ikastegian emandako prestakuntza eta Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketako Teknikari Titulua baliokideak izatea

2011ko abenduaren 26an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen EDU/3497/2011 Agindua, abenduaren 13koa, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzain Kidegoetako agentearen eta hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako teknikari-tituluaren arteko baliokidetasuna ezartzen duena.


Agindu horren bigarren artikulua haxe dio:

Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzain kidegoetako agente-kategoriaren izendapena, alegia, agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesuaren hiru faseak, Euskal Herriko Polizia Ikastegiak edo dagokion Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeak emandako prestakuntza-ikastaro teoriko-praktikoa eta praktika-aldia gainditzen dituzten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo titulu baliokidea duten ikasleen prestakuntza Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketako Teknikari Tituluaren baliokidea izango da; uztailiko 17ko 4/1992 Legearen 39.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

Izan ere, eskaera hori erantzun gabe zegoen, nahiz eta 1992. urteko Polizia Legean jada jasota egon. Hezkuntza Ministerioarekin kudeaketa asko egin ondoren, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako zuzendariaren laguntzarekin, azkenean, aintzat hartu dira Ertzaintzan (beste Segurtasun eta Kidego batzuk bezala) jasotako prestakuntza eta Udaltzain Kidegoena ere.

7. Prestakuntza-jarduerei buruzko konparazio-datuak

Matrikula-kopurua EHPIn, 2009., 2010. eta 2011. urteetan



I. Eranskina. Ikastaroen fitxak

Datak	Lekua	Ikastaroa	Jatorria
Urtarrilak 26	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM, APPV-EHPI irakasleak, beste batzuk
Urtarrilak 28	Su-eskola	SUTEAK (OINARRIZKOA)	Gurutze Gorria, DYA
01/31-02/01	Oiartzungo Ertzaintza	OINARRIZKO BBB ETA DEA	Gipuzkoako ertzain-etxeak
Otsailak 2-3	Oiartzungo Ertzaintza	OINARRIZKO BBB ETA DEA	Gipuzkoako ertzain-etxeak
Otsailak 7-8	Ertzaintza Oiartzun	OINARRIZKO BBB ETA DEA	Gipuzkoak ertzain-etxeak
Otsailak 9-10	Oiartzungo Ertzaintza	OINARRIZKO BBB ETA DEA	Gipuzkoako ertzain-etxeak
Otsailak 14-15	Oiartzungo Ertzaintza	OINARRIZKO BBB ETA DEA	Gipuzkoako ertzain-etxeak
Otsailak 16-17	Oiartzungo Ertzaintza	OINARRIZKO BBB ETA DEA	Gipuzkoako ertzain-etxeak
Otsailak 17-23	EHPI-APPV	ANBULANTZIAK GIDATZEA	Gipuzkoako anbulantziak
Otsailak 21-22	Ertzaintza Oiartzun	OINARRIZKO BBB ETA DEA	Gipuzkoako ertzain-etxeak
Otsailak 23-24	Oiartzungo Ertzaintza	OINARRIZKO BBB ETA DEA	Gipuzkoako ertzain-etxeak
Otsailak 22-23	APPV-EHPI	DEA IRAKASLEAK	APPV-EHPI irakasleak
02/24-03/02	EHPI-APPV	ANBULANTZIAK GIDATZEA	Larrialdia S. Coop (LRK Gipuzkoa)
Otsailak 24	EHPI-APPV	BIRZIKLATZE- IKASTAROA: EUSKARRI (DAEM)	DAEM (SOS Deiak 112)
Otsailak 26	Su-eskola	SUTEAK (OINARRIZKOA)	Gipuzkoako Babes Zibileko borondatezko langileak eta beste batzuk
Martxoan eta abenduan	EHPI-APPV	Ertzaintzaren XXIII. Promozioa	Ertzaintzaren XXIII. Promozioa
Martxoak 3	EHPI-APPV	BIRZIKLATZE- IKASTAROA: EUSKARRI (DAEM)	DAEM (SOS Deiak 112)
Martxoak 3-7	EHPI-APPV	4x4 GIDATZEA	DAEM (4x4 gidatzea), Gurutze Gorriko ERIE Mon
Martxoak 8-10	EHPI-APPV	4x4 GIDATZEA	DAEM (4x4 gidatzea), Gurutze Gorriko ERIE Mon


Datak	Lekua	Ikastaroa	Jatorria
Martxoak 14-18	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	DAEM (SOS Deiak 112)
Martxoak 14-17	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Martxoak 18	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM
Martxoak 21 eta 22	Erandioko Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Erandioko Ertzaintza
Martxoak 21-25	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	DAEM (SOS Deiak 112)
Martxoak 21-24	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Martxoak 25	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM
03/28-04/01	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	DAEM (SOS Deiak 112)
Martxoak 28-31	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Apirilak 1	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM
Apirilak 2	BZ Renteria	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA LARRIALDIETAN	Gipuzkoako Babes Zibileko borondatezko langileak
Apirilak 4-7	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Apirilak 8	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM
Apirilak 9	Arabako Gurutze Gorria. Gaztela kalea.	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA LARRIALDIETAN	Arabako Babes Zibileko borondatezko langileak
Apirilak 12-13	SEIS Gasteiz / A. Foronda	ESKU-HARTZEAK AIREONTZIETAN	DAEM, SEIS Vitoria-Gasteiz
Apirilak 14-20	EHPI-APPV	ANBULANTZIAK GIDATZEA	Ambulancias Maiz
Apirilak 14, 15	SEIS Gasteiz / A. Foronda	ESKU-HARTZEAK AIREONTZIETAN	DAEM, SEIS Vitoria-Gasteiz
Apirilak 26, 29	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
05/02-07/09	APPV-EHPI	SUHILTZAIEN OINARRIZKO IKASTAROA	Suhiltzaileak
Maiatzak 2, 6	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	DAEM (SOS Deiak 112)
Maiatzak 2, 5	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Maiatzak 4	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra

Datak	Lekua	Ikastaroa	Jatorria
Maiatzak 5	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 6	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 6	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM
Maiatzak 9, 13	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	DAEM (SOS Deiak 112)
Maiatzak 9, 12	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Maiatzak 9, 14	Getariako Gurutze Gorria	SALBAMENDU-ONTZIAK ERABILTZEA	Gurutze Gorria
Maiatzak 9	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 10	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 11	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 12	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 13	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 13	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM
Maiatzak 14	Txurdinagako SOS Deiak	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA LARRIALDIETAN	Bizkaiko Babes Zibileko borondatezko langileak
Maiatzak 14-15	BZ Zarautz	ORIENTAZIOA ETA GPSa (1. MAILA)	Gipuzkoako eta Arabako Babes Zibileko borondatezko langileak
Maiatzak 16,20	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	DAEM (SOS Deiak 112)
Maiatzak 16,19	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Maiatzak 20	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM
Maiatzak 23,27	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	DAEM (SOS Deiak 112)
Maiatzak 23,26	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Maiatzak 23	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 24	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 25	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra

Datak	Lekua	Ikastaroa	Jatorria
Maiatzak 26	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 26	EHPI-APPV	BIRZIKLATZE- IKASTAROA: EUSKARRI (DAEM)	DAEM (SOS Deiak 112)
Maiatzak 27	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 27	APPV-EHPI	PMA AK	DAEM
Maiatzak 27	Su-eskola	SUTEAK (OINARRIZKOA)	Gurutze Gorria, DYA, EHPI-APPV, DAEM
05/30-06/02	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Maiatzak 30	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Maiatzak 31	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Ekainak 1	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Ekainak 1	EHPI-APPV	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA LARRIALDIETAN	DAEM
Ekainak 2	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Ekainak 3	Iurretako Ertzaintza	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	Brigada Mugikorra
Ekainak 3, 9	EHPI-APPV	ANBULANTZIAK GIDATZEA	Gurutze Gorria, DYA, Babes Zibila + Osakidetza
Ekainaren 4 eta 5	SOS Deiak Bizkaia (Txurdinaga)	ORIENTAZIOA ETA GPSa (1. MAILA)	Bizkaiko eta Arabako Babes Zibileko borondatezko langileak
06/06-07/01	EHPI-APPV	SOS DEIAK 112 kudeatzaileak	DAEM (SOS Deiak 112)
Ekainaren 6, 9	APPV-EHPI	INFORMATIKA-TRESNA: EUSKARRI	Osakidetza Emergentziak
Ekainak 8	APPV-EHPI	OINARRIZKO PRESTAKUNTZA: EUSKARRIN KONTSULTAK EGITEA	DAEM
Ekainak 10	APPV-EHPI	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: DEA	APPV-EHPI Barnetegia
Ekainak 15	APPV-EHPI	OINARRIZKO PRESTAKUNTZA: EUSKARRI	DAEM
Ekainak 15	Iurretako	ETENGABEKO	Brigada Mugikorra

Datak	Lekua	Ikastaroa	Jatorria
	Ertzaintza	PRESTAKUNTZA: DEA	
Ekainak 18	Su-eskola	SUTEAK (OINARRIZKOA)	Bizkaiko Babes Zibileko borondatezko langileak
Ekainak 3, 9	EHPI-APPV	SUHILTZAILEEN KAMIOIAK GIDATZEA	Bilboko, Donostiako eta Gasteizko suhiltzaileak
Ekainak 27, 30	EHPI-APPV	SUHILTZAILEEN KAMIOIAK GIDATZEA	Foru Aldundiko suhiltzaileak
Ekainak 29	EHPI-APPV	PMA AK	SOS Deiak 112 kudeatzaileak
Uztailak 4, 29	EHPI-APPV	SOS DEIAK 112 kudeatzaileak	DAEM – SOS Deiak 112
Uztailak 14	EHPI-APPV	PMA AK	SOS Deiak 112 kudeatzaileak
Uztailak 15, 21	EHPI-APPV	ANBULANTZIAK GIDATZEA	Gurutze Gorria, DYA
Uztailak 20, 22	EHPI-APPV	4x4 GIDATZEA	SEIS (Gasteiz) eta UCEIS (Araba)
Uztailak 22, 29	EHPI-APPV	ANBULANTZIAK GIDATZEA	Larrialdiak S. Coop (LRK Gipuzkoa), Osakidetza
Uztailak 26, 28	EHPI-APPV	4x4 GIDATZEA	Euskadiko Babes Zibila
Irailak 13, 16	EHPI-APPV	ANTOL., AGINT., KONTROL.	Suhiltzaileak (ofizialordeak) Guardiaburuak
Irailak 19, 21	EHPI-APPV	ANTOL., AGINT., KONTROL.	Suhiltzaileak (sarjentuak) Taldeburuak
Irailak 13, 16	Madrilgo Babes Zibileko Eskola Nazionala	EGITURA ITSUTUETAN ERRESKATEAK EGITEA	TXAKUR UNITATEA (ERTZAINZTA-DAEM)
Irailak 21	EHPI-APPV	ERRESKATEAK HELIKOPTEROZ EGITEKO ESKU- HARTZEAK	DAEM, Gurutze Gorria, DYA, Babes Zibila
Irailak 21, 23	EHPI-APPV	4x4 GIDATZEA	Euskadiko Babes Zibila, DYA, Gurutze Gorria
Irailak 24	Su-eskola	SUTEAK (OINARRIZKOA)	Euskadiko Babes Zibileko borondatezko langileak
Irailak 26, 30	EHPI-APPV	ANBULANTZIAK GIDATZEA	Gurutze Gorria (5), DYA (5), BZko borondatezko langileak
Irailak 26, 29	EHPI-APPV	INFORMATIKA- TRESNA: EUSKARRI	DAEM (SOS Deiak 112)
09/26-10/01	Getariako Gurutze Gorria	SALBAMENDU- ONTZIAK ERABILTZEA	Gurutze Gorria
Irailak 28	EHPI-APPV	ESKU-HARTZEAK: ERRESKATEAK HELIKOPTEROZ	Bizkaiko eta Gasteizko SEIS, DAEM, DYA, CR, BZko borondatezko langileak

Datak	Lekua	Ikastaroa	Jatorria
Irailak 29	EHPI-APPV	PMA AK	
Urriak 3, 7	EHPI-APPV	ANBULANTZIAK GIDATZEA	GURUTZE GORRIA (5), DYA (5), PROSEGUR (2)
Urriak 28	Su-eskola	SUTEAK (OINARRIZKOA)	Zehazteke
11/07-11/12	Getariako Gurutze Gorria	SALBAMENDU- ONTZIAK ERABILTZEA	Gurutze Gorria
Azaroak 26	Su-eskola	SUTEAK (OINARRIZKOA)	Gurutze Gorria, DYA
12/12-12/16	EHPI-APPV	Ur-erreskateak azalean	Bilboko Udaleko suhiltzaileak



EUSKAL HERRIKO POLIZIA IKASTEGIA



ACADEMIA DE POLICIA DEL PAIS VASCO